


IRAKASLEEN GIDA

EUSKAL
HEZKUNTZA-SISTEMAN
SARTZEN DIREN
IRAKASLEENTZAT

π



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Euskal
hezkuntza-
sisteman
sartzen diren
Irakasleen
Gida

AURKIBIDEA

SARRERA	7
1. HEZKUNTZA EUSKAL AUTONOMIAERKIDEGOAN	
1.1. Euskal Herriko hezkuntza-sistema	9
1.2. Euskal hezkuntza-sistema arautzen duen oinarritzko araudia.	9
1.3. Hezkuntza Saila	10
1.4. ikastetxe-motak	10
1.5. Hezkuntza-eskaintza	11
1.6. Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak	11
2. IRAKASLE FUNTZIONARIOAK IZATEA: ARAUBIDE JURIDIKOA, ESKUBIDEAK, BETEBEHARRAK ETA PRESTAKUNTZA	
2.1. Erreferentziako araudia	13
2.2. Alderdi esanguratsuenen laburpena	13
2.3. Irakasleen prestakuntza	16
3. IKASTETXEAN IRAKASLE BERRI BAT HASTEA	
3.1. Ikastetxeko irakasle berrien harrera	17
3.2. Eskola-komunitatea	18
3.3. Ikastetxearen antolaketa eta funtzionamendurako oinarritzko dokumentuak	20
4. LEHEN URRATSAK IRAKASLE GISA	
4.1. ikastetxeari buruzko informazioa: dokumentuak	21
4.2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren plangintza	21
4.3. Ikasgelako irakasle-lana	23
4.4. Metodologia, baliabide didaktikoak eta aniztasunarekiko	27
4.5. Ebaluazioa	30
4.6. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunarekiko arreta.	32
4.7. Tutoretza eta familiekiko lankidetzatza	35
4.8. Partaidetzatza, talde-lana eta koordinazioa	36
4.9. Irakasle-lanari buruzko prestakuntza eta hausnarketa.	37
4.10. Kontuan izateko beste alde batzuk	40
5. PRAKTIKALDIAREN EBALUAZIOA	45
6. ERREFERENTZIAKO ARAUDIA	47
7. BIBLIOGRAFIA	49

SARRERA

Hezkuntza-sistemaren helburua hezkuntza komunitatea osatzen duten ikasle guztiek beren gaitasun eta trebetasunak ahalik eta gehien garatzea da, bizitza oso bat izan dezaten eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan aurrera egin ahal izan dezaten.

Irakasleria helburu hori lortzen laguntzeko giltzarrietako bat da. Baina irakasle-lanak berariazko lan-gaitasunak eskatzen ditu, curriculum, pedagogia, didaktika eta metodologiari buruzko ezagutza eta trebetasunetan zein bere lan-bizitzan finkatu eta hobetuko dituen irizpide, jarrera eta balio pertsonaletan oinarrituak. Prozesu horretan, hasierako prestakuntza, etengabeko prestakuntza eta praktika bera, hari buruzko azterketa eta hausnarketarekin batera, funtsezko elementuak izango dira.

Irakasle-lana zeregin konplexua dela onartu behar da, baina aldi berean, erronka handizat hartu behar da ikasleei beren gaitasun pertsonalak, sozialak, intelektualak, emozionalak,... eta, ondorioz, baita bizitzarako gaitasunak ahalik eta gehien garatzen laguntzea. Alde horretatik, garrantzitsua da irakaslea bere zeregin profesionalean hasten deneko unea zaintzea, eragin handia baitu bere lana gerora bideratzeko moduan.

Gida honek Euskal Hezkuntza Sisteman sartzen den irakaslearen harrera-prozesuan parte hartu nahi du. Bertan hezkuntza-sistemaren marko orokorra zein ikasgelako lanaren zehaztasunak eta bere hobekuntzan etengabe jardutearen garrantzia aurkezten dira.

Lehen atalean, gure hezkuntza-sistemaren ezaugarri orokorrak eta hura erregulatzen duen araudia aipatzen dira, bai eta Sailaren ildo estrategikoak ere, hau da, legealdi bakoitzean gure hezkuntza-sistemaren norabidea gidatzen duten ardatzak. Bigarren atalean, Hezkuntza Administrazioako langileriaren antolamendu-egitura azaldu, eta irakaslearen lan-bizitzarako baliagarria izan daitekeen informazioa eskaini dugu. Hirugarren atalean, ikastetxera hurbildu gara, eta Eskola Komunitatearen ezaugarriak eta antolamendua zein bere funtzionamendua arautzen duten dokumentuak jorratu ditugu. Dokumentu horietan irakasle berriak eskola-komunitatearen testuinguruari, ezaugarriei, helburuei, balioei, araei,... buruzko informazioa eta eskola-komunitateko kide izateko erreferentzia garrantzitsuak aurki ditzake. Laugarren atalean, irakasle-lanari eta ikastetxearen egunerokoari heldu diogu, ikastetxean eta ikasgelan ondo moldatzeko eta ikasleen formakuntzarako erabaki eraginkorrak hartzeko lagungarri izan daitezkeen zenbait jarraibide eskainiz. Bosgarren atalean, praktikaldiei buruzko informazioa jaso da, ondo dakizunez, EAEko irakasle funtzionarioen kidegoan sartzeko hautaketa-prozesuaren osagaietako bat, alegia. Bukatzeko, arau eta bibliografiari buruzko zenbait erreferentzia eta eranskin-atal bat jaso da.

Gida honen osagarri modura, Hezkuntza Sailaren webgunea kontsultatzea gomendatzen dugu, haren bitartez eskuratu ahal izango baituzu Sailak hartzen dituen erabakiei, hezkuntza-sistemaren berrikuntzei zein behar duzun edozein gairi buruzko informazioa.

Azkenik, ongiatorria egin nahi dizugu Hezkuntza-munduaren abentura interesgarri honetara, zorte handia izan dezazula opa dizugu, eta zure irakasle-esperientzia profesional zein pertsonalki hazteko baliagarria izatea espero dugu. Halaber zure lanak gizarte honen eraikuntzan duen garrantziaz jabetzea nahiko genuke, eta, aldez aurretik, eskerrak eman nahi dizkizugu etorkizunari ahalik eta modurik onenean aurre egin ahal izateko herritarrak lortzeko erronka honetan egindako ahaleginarengatik.

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza

1.1. Euskal Herriko hezkuntza-sistema

EAEEn, Hezkuntza Saila da hezkuntza-sistemaren kudeaketaz arduratzen den gobernu-organoa. Hezkuntza-sistema lau esparru zabaletan sailkatuta dago:

- a) **Derrigorrezko hezkuntza:** familiak bere seme-alabak edo tutoretzapekoak 6 urtetatik 16 urte bitartera eskolatzeko eskubidea, betebeharra eta erantzukizuna du. Horrez gain, hezkuntza Administrazioak adin horretako ikasle guztiei ikaspostu bat eskaintzeko betebeharrari erantzun behar dio. Derrigorrezko hezkuntza bi alditan banatzen da: **Lehen hezkuntza** (6-12 urte bitartean) eta **Bigarren Hezkuntza** (12-16 urte bitartean)
- b) **Derrigorrezkoa ez den hezkuntza:** Derrigorrezko Hezkuntzaren aurreko eta ondorengo hezkuntza-eskaintza. Honela banatzen da: **Haur Hezkuntza** (0-6 urte bitartean), **Batxilergoa** (16-18 urte bitartean), **Lanbide Heziketa** eta **Unibertsitatea**.
- c) **Araubide bereziko irakaskuntzak:** hezkuntza-eskaintza orokorraz gain, Euskal Herrian arte, kirol eta hizkuntzekin loturiko bestelako ikasketak. Irakaskuntza horiek doakoak dira ikastetxe publikoetan.
- d) **Helduen hezkuntza iraunkorra:** ikastetxe arruntetako eskaintza bera da, baina 18 urtetik gorakoentzat. Ikasketa horiek aurrez aurrekoak edo urrikoak izan daitezke. Eskaintzak barne hartzen ditu: Hasierako Irakaskuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa, Hizkuntzak, eta beste zenbait irakaskuntza ez formal, hala nola, atzeritarrentzako gaztelania eta laneko prestakuntzarako ikastaro eta tailerrak.

1.2. Euskal Hezkuntza Sistemaren oinarrizko araudia

Hezkuntza-sistemaren oinarrizko alderdiak Konstituzioaren 27. artikulua ondu ondoriozko [Lege Organikoaren](https://goo.gl/UpKyig) bidez arautzen dira [https://goo.gl/UpKyig]. Aipatutako legea Euskal Hezkuntza Sistemari aplikatzen zaio, hargatik eragotzi gabe irakaskuntzaren alorrean Autonomia Estatutuan ezartzen diren ahalmenak, araubide orokorrekoak zein araubide berezikoak, etapa eta maila desberdinak barnean direlarik, bai eta goi-mailako hezkuntza ere. Bizitza osoan kualifikazioak eskuratu edo areagotzea dakarten ikaskuntza-jarduerak] ere sartzan dira.

Autonomia mailan, [Euskal Eskola Publikoari buruzko Legeak](https://goo.gl/gZ2mZm) arautzen du hezkuntza [https://goo.gl/gZ2mZm]. Lege horrek honako hauek jasotzen ditu: hezkuntzarako eskubidearen egikaritzea, Euskal Eskola Publikoaren irizpide orokorrak eta helburuak, ikastetxe publikoen autonomia, eskolaren antolaketa etab.

[Heziberri 2020](https://goo.gl/sMfy41) Hezkuntza Sailaren plana da gure hezkuntza-sistema hobetzeko [https://goo.gl/sMfy41]. 2020rako Europako esparruak ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak eta Euskal Hezkuntza Sistemaren berezko erronkak asmoari erantzuten dio planak, hezkuntza eta prestakuntzari dagokienez, sistemaren bikaintasunerantz egiteko bidean aurrera egin eta gizarte zuzen, kohesionatu eta aktibo bat lortzeko.

http://

http://

http://

Bi euskarrietan oinarritzen da:

- Lehen zutabeak gure hezkuntza-sistemak orain arte eginiko ibilbidea jasotzen du. Hezkuntza-esperientzia arrakastatsu ugari biltzen ditu, zeinek Hezkuntza komunitatearekin bat datorren kultura pedagogikoa eraikitzen lagundu duten.
- Bigarren zutabea eragileen parte-hartzea da. Hezkuntzak guztion erantzukizuna izan behar du, eta guztion konpromisoa eskatzen du gerora hobetu, eta bideragarria eta iraunkorra izango dela ziurtatzeko.

Hiru proiektuk osatzen dute, zeinek beren barne hartzen duten: hezkuntza-eredu pedagogikoaren esparrua, EAEko curriculumari buruzko dekretuak eta Euskal Hezkuntza Lege bat lortzeko

Oinarrizko arau hau garatzeko araubide ugari dago, eta batzuk atal honetan eta 6. atalean aipatuko ditugu.

1.3. Hezkuntza Saila

<http://www.euskadi.eus> webgunean eskura dezakezu EAEko Administrazioaren Sail eta erakundeei zein haien egiteko eta jardun-arloei buruzko informazioa.

Halaber, **Hezkuntza Sailaren** webgunean kontsulta ditzakezu Euskal Hezkuntza Sistemaren organigrama eta Sailaren beraren egitura eta egitekoak: [<https://goo.gl/yWRMpb>].

1.4. Ikastetxe-motak

1.4.1. Hizkuntza-ereduak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultura Sailaren [138/1983 Dekretuak](#) arautzen du hizkuntza ofizialen erabilera Euskal Herriko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan, eta ondoren deskribatzen diren irakaskuntza-eredu elebidunak ezartzen ditu:

- A ereduak: gaztelania da irakasteko hizkuntza, Euskal hizkuntza eta Literatura irakasgaiak izan ezik.
- B ereduak: irakaskai batzuk gaztelaniaz irakasten dira eta beste batzuk euskaraz.
- D ereduak: euskara da irakasteko hizkuntza, Gaztelania eta Gaztelaniaren Historia irakasgaiak izan ezik.

Gaur egun, ikastetxeen autonomiaren esparruan, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen duen abenduaren 22ko [236/2015 Dekretuak](#), ikastetxe bakoitzak, Hizkuntza Proiektuaren garapenaren bidez, bere hizkuntzaren plangintza erabakitzeke aukera ematen du. Dekretu horren 24.1 artikulua honelaxe dio:

«Ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan jasotako ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak nola irakatsiko eta erabiliko diren finkatuko du Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuak, eta zehaztuko du zer-nolako trataera izango duten hizkuntzek Ikastetxeko Curriculum Proiektuan. Agiri horretan jasotako erabakiek zuzeneko eragina izango dute ikastetxeko agiri hauetan: Antolakuntza eta Jarduera Arautegian edo Barne Arautegian, ikastetxeko

[http://](#)

[http://](#)

[http://](#)

urteko plangintzan, barruko eta kanpoko harremanak arautuko dituzten printzipioetan eta abar, haien bidez gauzatuko baitira Ikastetxeko Hizkuntza Proiektuko printzipioak».

1.4.2. Hezkuntza-sareak

- **Publikoa:** Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak, Eusko Jaurlaritzaren beste sail batzuek, Toki Korporazioek edo Haurreskolak Partzuergoak kudeatutako ikastetxeak biltzen ditu.

Zuzenean Hezkuntza Sailaren mende dauden ikastetxeentzat, Hezkuntza Sailburuordetzak ikasturtea antolatzeko ematen dituen jarraibideak argitaratzen dira urtero; Sailaren webgunean ikus ditzakezue, «Ikastetxeak eta irakaskuntzak» atalean: <https://goo.gl/hDrkyh>

Hezkuntza Saila → Lan arloak → Ikastetxeak eta irakaskuntzak → Ikasketen egitura eta antolamendua → ikasturtearen antolaketa ikastetxe publikoetan → Ebazpenak

- **Pribatua:** Erakunde pribatuek kudeatzen dituzten baimendutako ikastetxeak biltzen ditu. Ikastetxe pribatu gehienak funts publikoekin finantzatzen dira, hezkuntza-itunen edo diru-laguntzen bidez. Itunak eman daitezke Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Batxilergoan, eta Lanbide Heziketan. Diru-laguntzak eman daitezke Haur Hezkuntzako lehen zikloan, Helduen Hezkuntzan eta araubide bereziko irakaskuntzetan. Kontzertu Ekonomikoa irailaren 8ko [293/1987 Dekretuak](#) arautzen du irailaren 15eko EHAAr argitaratua.

1.4.3. Araubidea

- **Araubide orokorra:** Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Irakaskuntza berezia, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Helduen Hezkuntza biltzen ditu.
- **Araubide berezia:** Hizkuntza-irakaskuntzak, kirol-irakaskuntzak, arte-irakaskuntzak (musika, dantza, eta arte plastikoak).

1.5. Hezkuntza-eskaintza

EAEko ikastetxeetako zerrendak eta maila, eredu edo espezialitateen arabera sailkatutako harremanetarako datuak Hezkuntza Sailaren webguneko «Ikastetxeak eta irakaskuntzak» atalean: <https://goo.gl/V8srnS> eskura ditzakezu.

Hezkuntza Saila → Lan arloak → Ikastetxeak eta irakaskuntzak → Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe-sarea → Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen direktorio orokorra → Sartu direktorioan

1.6. Hezkuntza Sailaren ildo estrategikoak

legealdi bakoitzaren hasieran, Hezkuntza sailak, aldi horretarako jarduketarantz estrategikoak izango diren jardun-ildo batzuk lehenesten ditu. Jarduketarantz estrategiko horiek premia edo behar handiena duten esku-hartzeak edota Euskal Hezkuntzaren erronkak kontuan hartuz ezarriko dira. [Sailburuaren agurrak](#) [<https://goo.gl/q3Bohg>] ematen dio sarrera webguneari, eta bertan ildo estrategiko horietako batzuk aipatzen ditu.

Ildo estrategiko horiei dagokienez, aldiro deialdiak egiten dira ikastetxeak parte hartzera bultzatzeko ildo horiek lantzerako bideratutako proiektu eta programetan.

Aipatutako proiektu eta programak Hezkuntza Sailaren webgunean [<https://goo.gl/EdRDYs>] kontsulta daitezke, «Hezkuntza Berriztatzea» atalean [<https://goo.gl/wZBWpM>].



Hezkuntza berrikuntza → Lehentasun-ildoak



2. Irakasle funtzionarioa: araubide juridikoa, eskubideak, betebeharrak eta prestakuntza

2.1. Erreferentziako araudia



Funtzionario izateak berarekin dakartza hainbat betebeharrak eta eskubideak, zeinak araudi honen bidez arautzen diren:

- [1/1993 Legea](#), otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzko Oinarrizko Estatutuarena.
- [6/1989 Legea](#), uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoa.
- [5/2015 Legegintzako Errege dekretua](#), Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren testu bategina (EPOE) (VI. ATALA. Enplegatu publikoen eginbeharrak. Jokabide-kodea). [7/2007 Legea](#), apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa (EPOE).
- [32/1983 Legea](#), Euskal Autonomia Erkidegoan Herri Jardunean Aritzeagatikako Elkartuezinei buruzkoa. Euskal Administrazio Publikoak.
- [2/1993 Legea](#), otsailaren 19koa, EAEko Unibertsitateaz kanpoko Irakaskuntzako irakasle-kidegoei buruzkoa.
- [15/2008 Legea](#), abenduaren 19koa, EAEko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan zenbait irakasle-kidego sortzekoa.
- [39/2015 Legea](#), urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- [40/2015 Legea](#), urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzkoa.
- [177/2010 Dekretua](#), lana eta familia bateragarri egiteko laguntzei buruzkoa.
- [185/2010 Dekretua](#), uztailaren 6koa, EAEko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordio onartzeko dena.

2.2. Alderdi adierazgarrienen laburpena

Ondoren, aurreko puntuan aipatutako arauan jasotzen diren alderdi adierazgarrienetako batzuk aurkeztuko ditugu, hala nola, enplegu publikoari eta haren sailkapenari buruzko oinarrizko zenbait ideia, funtzionario publikoaren araubide juridikoaren ezaugarriak, funtzionarioen antolamendua, aurki daitezkeen egoera administratibo desberdinak, eskubide eta betebeharrak, karrerako funtzionario izaera galtzeko arrazoiak, lansariak, oporrak, baimenak, lizentziak, prestakuntza-eskubidea etab.

2.2.1. Enplegu publikoari buruzko oinarrizko ideiak: sailkapena

Administrazioarentzat lan egiten duten pertsonen, hauetako egoera batean egon daitezke:

- Karrerako funtzionarioa: legezko izendapenaren bidez administrazio publiko bati lotuta daudenak, Administrazio Zuzenbideak araututako

estatutu-harreman baten bidez, zerbitzu profesional ordainduak emateko, iraunkortasunez.

- Bitarteko funtzionarioa: urgentziak eta beharrak hala aginduta, berariaz justifikatutako arrazoiak direla-eta, bitarteko funtzionario izendatutakoak karrerako funtzionarioei dagozkien zereginak egiteko.
- Lan-kontratuko langileak: lan-arloko legeriaren arabera langileak kontratatzeke edozein modalitate erabilia, idatziz formalizatutako lan-kontratu bati esker, administrazio publikoek ordaindutako zerbitzuak ematen dituztenak. Kontratua finkoa, mugagabea edo aldi batekoa izan daiteke.
- Behin-behineko langileak: izendapen baten bidez eta iraupen ez iraunkorrez, espresuki konfiantzazkotzat edo aholkularitza berezikotzat jotzen diren eginkizunak bakarrik betetzen dituzten eta beren ordainsaria xede horretara bideratutako aurrekontu-kredituen kontura jasotzen duten langileak.

2.2.2. Funtzionario publikoaren araubide juridikoaren ezaugarriak

Administrazio Publikoan funtzionarioek betetzen dituzten lanpostuek zenbait ezaugarri dituzte, hala nola, legezko izendapena dute; Administrazio-arekin estatutupeko harremana dute (Estatutuak agintzen du, ez kontratu batek); mugarik gabeko zerbitzua betetzen dute; araupeko egoeran daude, ordainsariak aurrekontu orokorren kontura dira.

2.2.3. Funtzionarioen antolamendua

Funtzionarioak Kidegoetan sailkatuko dira, Kidego bakoitzerako eskatzen den titulazio-mailaren eta eginkizunen arabera.

Kidegoek lanpostu-zerrendak eratzen dituzte eta guztientzako sarrerako eta barne-mailatan gora egiteko probak bideratzen dituzte.

Kidegoak sortu, aldatu edo kentzeko Eusko Legebiltzarraren legea behar izango da.

Funtzionarioen Kidegoak, sartzeko eskatutako titulazio-mailaren arabera, honako Talde hauetan bilduko dira titulazio-mailaren arabera:

- **A Taldea**, bi azpitaldetan banatuta dago A1 eta A2. Talde honetan sartzeko gradu mailako unibertsitate-titulua izan beharko da. Azpitalde bakoitzean bete beharreko eginkizunen arduraren eta bertan sartzeko proben ezaugarrien mailako gaitasuna izan beharko da..
- **B Taldea**. Talde honetan sartzeko goi-mailako teknikari titulua behar izango da.

Barne-mailatan gora eginez beste kidego eta eskala batzuetara iritsi diren funtzionarioek alde-aurretik sendotua zuten norbere gradua izango dute, gradu hori kidego edo eskala berriak hartzen dituen taldeari dagozkion mailen tartearen barruan badago.

2.2.4. Administrazio-egoerak



Euskal Administrazio Publikoetako funtzionarioak honako egoera administratibo hauetako batean egon daitezke:

- a. zerbitzu aktiboan,
- b. borondatezko eszedentzian,
- c. borondatezko eszedentzia pizgarridunean,
- d. seme-alabak zaintzeko eszedentzian,
- e. destinoaren zain,
- f. zerbitzu berezietan,
- g. nahitaezko eszedentzian,
- h. destinoaren zain dauden funtzionarioei aplikatzekoa den nahitaezko eszedentzian,
- i. gabetzan, eta
- j. zerbitzuan, beste administrazio publiko batzuetan.

2.2.5. Funtzionarioen eskubideak

Funtzionarioen eskubideak bi eratakoak izan daitezke: *norbanakoak* (lizentziak, baimenak, oporrak,...) eta *taldean baliatzen diren norbanakoaren eskubideak* (grebarako eskubidea...).

Alderdi horiei buruzko informazioa hemen aurki dezakezu:


- [7/2007 Legea](#), apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa. 
- [185/2010 Dekretua](#), uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duena. 

2.2.6. Irakasle funtzionarioen lansariak

Bi kategoriatan sailkatzen dira:

- Oinarrizkoak:
 - Soldata (taldearen arabera: A1 edo A2)
 - Hirurtekoak (taldearen arabera)
 - Aparteko ordainsariak (urtean bi): soldata + hirurtekoak + destino-osagarria + berariazko osagarriaren % 90
- Osagarriak:
 - Destino-osagarria (mailaren arabera)
 - Berariazko osagarria: orokorra edo berezia (lanpostuaren arabera)
 - Irakasleen prestakuntzarako berariazko (seiurtekoak)
 - Dietak edo joan-etorrietako gastuak

2.2.7. Funtzionarioen betebeharrak

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren testu bategina den 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua (EPOE)(VI. ATALA Enplegatu publikoaren betebeharrak. Jokabide Kodea) [7/2007 Legea](#), apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa (EPOE). 

Horrez gain, irakasle funtzionarioek hezkuntzako indarreko araudian jasotzen diren eginkizunak eta ondoriozko erantzukizunak bete behar dituzte.

2.2.8. Karrerako funtzionarioaren izaera galtzea

Karrerako funtzionario izateari uzteko arrazoiak honako hauek dira:

- a. Funtzionario izateari uko egitea.
- b. Nazionalitatea galtzea.
- c. Funtzionarioak erabateko erretiroa hartzea.
- d. Zerbitzutik kentzeko diziiplina-zehapen irmo bat egotea.
- e. Kargu publikoa betetzeko erabateko desgaiakuntza edo desgaiakuntza berezia dakarren zigor nagusia edo erantsia irmoa izatea.

2.3. Irakasleen prestakuntza

Irakasleen prestakuntza eskubidea eta betebeharrak bat da.

Hezkuntza Sailak prestakuntza erabat praktikoaren aldeko apustua egiten du, irakasleen esperientzia oinarritzat hartuz ikastetxeen testuinguruan kokatzen dena.

Urtero irakasleen prestakuntzari lotutako diru-laguntza deialdiarako aginduak ematen dira, Hezkuntza sailburuaren Aginduaren bidez, zeinak Irakasleen Etengabeko Prestakuntzarako Plana garatzeko proiektuak aurkeztuz Hezkuntza Sailarekin batera lan egin nahi duten erakunde publiko eta pribatuei dei egiten dien.

Horrez gain, lankidetzaren hitzarmenak daude bestelako erakunde eta entitateekin, eta haien jarduerak Urteko Etengabeko Prestakuntza Planean sartzen dira.

Prestakuntzaren antolaketa Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzaren menpe dago, eta, nagusiki, «Prest Gara» planaren bitartez bideratzen da [<https://goo.gl/YYmlda>].

Hezkuntza Berriztatzea → Irakasleen etengabeko prestakuntza → Prest Gara



Jarduera horietako batzuk ikastetxeetan bertan, Berritzeguneetan, UPV/EHUren egoitzetan eta bestelakoetan irakasten dira.

3. Irakasle berri baten etorrera ikastetxera

3.1. Ikastetxeko irakasle berriekiko harrera

Ikastetxera iristen den irakasleak oinarrizko eta ezinbesteko elementuei buruzko informazioa behar du lanean hasteko. Ikastetxeko dokumentu eta proiektu instituzionalak ezagutzen joan behar du, batez ere, Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP), antolamendu- eta funtzionamendu-arauak (JAA), eta lan-ildo esanguratsuenak. Halaber hezkuntza-komunitateko kideei aurkeztu behar zaie, ikastetxearen bizitzan ahalik eta lehen eta ondoen sartzen laguntzeko.

Irakasle gehienentzat, lehen lan-urtea edo ikastetxe berri batean lanean hasten direneko urtea, ziurgabetasun-aldiak izan ohi dira, eta oso garrantzitsua da taldearen laguntza izatea eta, hala badagokio, praktikaldiko tutorearekin. Ikastetxera iritsi ondoren, lehen egunetan, irakasle berriari harrera egiteko uneak hartu beharko lirateke, ikastetxera eta hezkuntza-komunitatera egokitzen eta haien testuinguruaz, ezaugarriez eta funtzionamenduaz jabetzen laguntzeko.

Horrez gain, harrera horren bidez, ikastetxekoa delako sentimendua sortu nahi da, irakasle berria ikastetxean integratua eta onartua senti dadin, ikastetxeko xede eta helburuekiko inplikazioa sustatzeko. Hezkuntza-komunitateko kide guztien arteko harreman ona lagungarria izango da aipatutako helburuak lortzen laguntzeko.

Harrera-prozesua zuzendaritza-taldeak koordinatu ohi du. Zuzendaritzak ongi-etorria egingo dio, ezaugarri aipagarrienak, proiektuak eta arau orokorrak azalduko dizkio, irakasle berriaren datuak jasoko ditu, eta lehen egunetarako behar izango duen informazioa, bere lanari buruzkoa zein ikastetxean moldatzeko beharko duena, emango dio. Oso garrantzitsua da lehenbailehen aurkeztea garatuko duen lanarekiko hurbilen dauden irakasleei eta irakasle ez diren langileei.

Beharbada, dokumenturen bat emango zaio ikastetxea nolakoa den, nola antolatuta dagoen, zein den bere hezkuntza-proiektua, nolako ikasleak dituen, zein proiektuetan diharduen etab. hobeto ezagutzen laguntzeko

Dokumentu horretan atal hauetako batzuk aurki daitezke:

1. Sarrera. Kokapena eta testuingurua.
2. Hezkuntza-komunitatea: ordezkaritza- eta partaidetza-organoak.
3. Ikastetxearen egitura: zuzendaritza-taldea, klaustroa, sailak, lan-kontratukoak ez diren langileak etab.
4. ikasleen antolaketa (taldeak eta tutoretzak).
5. Koordinazio-egiturak.
6. Egutegia, ordutegia eta planoak.
7. Antolaketa: eginkizunak, hutsegite eta bajak, guardien funtzionamendua, ordezkapenak, eskolaz kanpoko jarduerak, ebaluazio-saioak, eskola-osasunari eta istripuei buruzko jarraibideak, espazio eta zerbitzuen erabilera, IKT gida.

8. Ikastetxearen araudia (bizikidetza-arazoei erantzuteko prozedurak).
9. Aniztasunarekiko trataera: aniztasunari erantzuteko plana, harrera-plana, indartze-neurriak, banatzeak etab.
10. Ikastetxearen proiektuak: 21Agenda , Hezkidetza, Elkarbizitza, etab.

Zure lankidetza oso garrantzitsua da dokumentu hori hobetzeko, baliagarria izan duzun, hobeto argitu beharreko zerbait ikusi duzun edo atalen bat falta dela sumatu duzun adieraziz.

3.2. Eskola Komunitatea

Ikastetxea da hezkuntza-komunitate osoa biltzen duen testuingurua. Ikastetxearen izaera eta kultura eratzen duten balioak, helburuak, egiturak baliabideak eta harreman-sistema dira bere ezaugarriak.

Ikastetxearen kudeaketarako beharrezkoak dira antolaketa-, koordinazio- eta partaidetza-organo eta egiturak. Euskal eskola Publikoari buruzko legearen arabera, ikastetxe publikoek gutxienez kide anitzeko eta kide bakarreko organo hauek eduki behar dituzte:

- **Kide anitzeko organoak:**
 - **Ordezkaritza Organo Gorena (OOG):** eskola-komunitateko kideek euskal eskola publikoko ikastetxeetako gobernuan esku hartzeko duten organoa da. Eskola-bizitzan eragina duten funtsezko erabakiak hartzeko ardura du eta, ikastetxeko autonomia-esparruan, ikastetxearen funtzionamenduaren azken arduraduna da.
 - **Klaustroa:** ikastetxeko zuzendaria du buru, eta bertan lan egiten duten irakasle guztiek osatzen dute. Ikastetxearen curriculum-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa landu eta onartzea dira bere zereginetako batzuk. Ordezkaritza Organo Gorenaren ardura izango da horiek Ikastetxearen heziketa-proiektuarekin bat etorri daitezen zaintzea.
 - **Zuzendaritza-taldea:** zuzendariak, ikasketaburuak, idazkariak eta, hala badagokio, ikastetxeko administrariak osatuko dute.
 - **Gurasoen batzarra:** Gurasoek ikastetxearen kudeaketan parte hartzeko duten berariazko organoa da. Ikasleen guraso edo legezko tutore guztiek osatuko dute.
 - **Ikasleek ikastetxearen kudeaketan izango duten berariazko partaidetza bideratuko duen organoa.** Ikastetxe bakoitzeko antolakuntza- eta funtzionamendu-araudiak (AFA) ikasleen parte hartzea bideratuko du, dela mailako ikasleen ordezkariaren bitartez, dela ordezkari-batzordeen, berariazko xede edo egitekoa duten batzordeen edo antzekoen bidez.

- **Kide bakarreko organoak:**

- **Zuzendaria** da ikastetxearen kudeaketa orokorraren eta funtzionamenduaren arduraduna, eta bereziki ikastetxeko irakaslanaren arduraduna, eta Eskola Kontseiluak emandako ildoak betetz jarduten du.
- **Ikasketaburua** da ikasketa-proiektua eta irakaskuntza-jardueren programa koordinatu eta gauzatzen direla zaintzeko ardura duen organoa.
- **Idazkariaren** eta, hala badagokio, administrariaren, ardura izango da kide anitzeko organoen saioetan jorratuko diren gaiak prestatu, aktak jaso eta gorde eta jasotako erabakiak eta ebazpenak egiaztatzea, eta, era berean, material didaktikoaren zaintzaz arduratuko da.

Ikastetxe bakoitzaren Antolakuntza eta Jarduera-Araudiak (AJA), aipatutako organoek gain, horien alboko pertsona bakarreko beste organo batzuk aurreikusi ahal izango ditu.

Horietaz gain, **irakaskuntza koordinatzeko hainbat egitura** egon daitezke:

- **Pedagogia Koordinaziorako Batzordea:** ikasketaburuaren begiradapean, sail didaktikoak eta irakasle-taldeak koordinatzen dituen organoa da.
- **Koordinazio didaktikorako departamentua:** organo hau Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan agindutako jakintzagaien edo moduluen berezko irakaskuntzak antolatzeaz eta garatzeaz arduratzen da. Taldeburu baten zuzendaritzapean egongo da, eta jakintzagai bera irakasten duten irakasleen edo, hala badagokio, ildo bereko jakintzagaietako irakasleen koordinazioa bermatuko du.
- **Tutoreen arteko koordinazioa:** Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxe bakoitzean talde didaktiko bakoitzeko gutxienez tutore bat egongo da. Tutoreak ikasle guztiei, banan-banan, eta taldeari lagundu eta jarraipena egin behar die, nork bere proiektua eraiki dezan. Ziklo edo hezkuntza-maila berean diharduten tutoreak batu eta lantaldeak osatu daitezke, haien arteko koordinazioa eta lan pedagogikoa hobetze aldera.
- **Zikloaren koordinazioa:** haur- eta lehen-hezkuntzako ikastetxeetan, bakoitzaren ezaugarrien arabera, hezkuntza-ziklo berean diharduten irakasleek osatutako lan taldeak sortu daitezke, irakasle horien arteko koordinazioa eta lan pedagogikoa hobetze aldera.
- **irakasle-taldea:** ikasle-talde bati irakasten dioten irakasleek osatzen dute.

Kontuan izan behar da behar bezalako koordinazioak nabarmen lagunduko duela hezkuntza-kalitatea hobetzen.

3.3. Ikastetxearen antolamendu eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko dokumentuak

Ikastetxe baten nortasuna adierazten duten helburu nagusiak, balioak, itxaropenak, egiturak, arauak, jarduera-ildo orokorrak, kudeatzeko modua, etab. ikastetxeko dokumentuetan jaso behar dira.

Dokumentu horietako batzuk epe luzekoak dira, zenbait urtetan zehar garatu beharreko alderdi orokor eta estrategikoak jasotzen baitituzte, hala nola, Ikastetxearen Heziketa Proiektua, Ikastetxearen Curriculum Proiektua, Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudia edo Ikastetxearen Bizikidetzeta Plana.

Beste batzuk epe ertaineko itxaropenak edo plangintza estrategikoa islatzen dute; adibide modura, Zuzendaritza Proiektua edo 3, 4, edo 5 urterako plan estrategikoa aipa daitezke.

Azkenik, epe motzago batean gauzatzeko plangintza jasotzen dituzten dokumentuak ditugu, hala nola, Ikastetxearen Urteko Plana.

3.3.1. Epe luzera planifikatzeko dokumentuak

Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP) hezkuntza-komunitatearen nortasun-ezaugarriak zehazten dituen oinarrizko eta funtsezko dokumentua da, zeinaren bidez hezkuntza-komunitatearen etorkizuneko ilusio eta itxaropenak islatu, eta lortu nahi den irudia kanporatzen den. Bera garatzeko beharrezkoak diren dokumentu guztien noranzkoa bideratzeko beharrezko oinarrizko irizpideak jasotzen ditu, honako hauek nagusiki:

- Curriculumaren eremuan, Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP).
- Antolamenduaren eremuan, Antolaketa eta Jarduera Araudia (AFA)
- Harreman eta bizikidetzaren eremuan, Ikastetxearen Bizikidetzeta Plana.


Horietan biltzen dira ikastetxeko jardun guztiaren arrazoia izango diren oinarrizko erreferenteak, hezkuntza-jarduerari koherentzia eta egonkortasuna erantsiz.

3.3.2. Epe ertainera planifikatzeko dokumentuak

Badira ikastetxearen bizitzako alderdi zehatzagoak garatzen dituzten bestelako dokumentu operatibo eta funtzionalak ere. Batzuk plangintza estrategikoaren arlokoak dira, hala nola, Zuzendaritza Proiektua edo Plangintza Estrategikoa; beste batzuk zuzenean berriazko gaiekin lotuta daude, adibidez, Hezkuntza Proiektua, Tutoretza Jarduerako Plana, Orientazio Plana, edo ikastetxearen berriazko beste plan batzuk.

3.3.3. Epe motzera planifikatzeko dokumentuak

Azkenik, beste dokumentu batzuetan urteko plangintza zehatzagoa jasotzen da, adibidez, Ikastetxearen Urteko Plana, Ebaluazio Memoria edo Programazio didaktikoak



Ikastetxo dokumentuetako artikuluen eskema: <https://goo.gl/c8Qzz1>



4. Lehen urratsak irakasle gisa

Ohikoa da irakasleak, bere lehen lanegunetan, segurtasun eza eta laguntzaren beharra nabaritzea. Ez da zalantzarik izan behar zuzendaritza-taldeari eta lankideei laguntza eskatzeko. Gainera, gehienetan, ikastetxeak zonaldeko Berritzegunearen aholkularitza jaso ohi du, dela erreferentziako aholkularitzaren aldetik dela hezkuntza-premia berezietako aholkularitzaren aldetik; beraz, baliabide hori ere baliatu ahal izango da. Berritzeguneak hezkuntza hobetu eta berrikuntza sustatzeko zerbitzuak dira, eta hezkuntzako esku-hartzea hobetzeko proposamenak egitea eta irakasleen etengabeko eguneratzea ditu helburu.

Segidan lagungarri izan ditzakezun zenbait jarraibide eta aholku eskaintzen dizkizugu.

4.1. Ikastetxeari buruzko informazioa: dokumentuak

Funtsekoa da, alde batetik, zenbait alderdiri buruzko informazioa izatea, hala nola, ikastetxearen ezaugarriei eta testuinguruari buruz, bai eta eskolako ohiturei eta “eskola-kulturari” buruz ere, eta, bestetik, ikastetxearen antolaketa-eta kudeaketa-dokumentuak ezagutzea. Kontuan hartu behar dira Urteko Plana eta bere helburuak, funtsezkoak izango baitira kurtsoan zehar lanbide-eginkizuna garatzeko.

Garrantzitsua da ikastetxean lan egiten duen langileria ezagutzea eta, behar izanez gero, laguntza eskatzea irakasleari zein irakasle ez den langileriarri. Administrazioek, atezainek, jangelako eta garraioko langileek ardura-banaketari, materialaren kokapenari, ikastetxearen barne-kudeaketa prozedurei eta abarri buruzko informazio handia dute. Gehienetan harreman ona izan ohi dute gizarte-ingurunearekin, ikasle eta familiekin.

Irakasle berriak, apurka-apurka, ikastetxeko ohiko praktikak ezagutu eta bere dinamikan sartu ahal izango da. Ikastetxearen errealitatea ezagutu ahala, egokiak iruditzen zaizkion hobekuntza-proposamenak egiteko aukera izango du, dagozkion bideak erabiliz.

4.2. Irakatsi eta ikasteko prozesuaren plangintza

Plangintza zehatza egiteko denbora behar da, batez ere hasieran, baina kontuan hartu behar da harreman zuzena dagoela irakasle-lanaren plangintza egokiaren eta ikasleek ezagutzak lortzeko eraginkortasunaren artean.

Lehenik eta behin urteko programazioa prestatu behar da, ikastetxearen curriculum-proiektua oinarri gisa hartuz, eta kontuan izanik hezkuntza-etapa bakoitzari dagozkion Curriculum Dekretuen edukiak eta haren maila, arlo, eta moduluei dagozkienak: <https://goo.gl/sMfY41>

Honako esteka honetan kontsulta daiteke: <https://goo.gl/C7mffk>

Programazioak honelako izan behar du:

- Bat etorri behar du Sailaren jarraibideekin eta Ikastetxearen Curriculum Proiektu, ziklo edota bestelako koordinazio-egituren irizpideekin.



- Oinarrizko gaitasunak jaso behar ditu, bai zehar-gaitasunak, bai diziplina baitakoak, helburuak, irizpideak, ebaluazio-irizpideak, edukiak, metodologia, baliabideak, ebaluazio-tresnak eta kalifikazio-irizpideak.

Ikasleak oinarrizko zehar-gaitasunak zein diziplina arloari dagozkionak landu behar ditu. Zeharkako gaitasunak modu integratuan ikasi eta ebaluatzen dira, diziplina-gaitasunen edukiak garatzen dituzten arlo eta ikasgaien bidez. Halaber, diziplina baitako oinarrizko gaitasunak eskuratzeko ezinbestekoa da zeharkako gaitasunen bitartekaritza.

- Kontuan hartu behar dira ingurunearen ezaugarriak eta ikasleen ezaugarri, premia, gaitasun-maila eta zailtasunak, zein aurkeztuko diren ezagutzei ekiteko beharrezkoak diren aurreko ezaupideak.
- Argi definitu behar dira oinarrizko edo gutxieneko helburuak eta mailaz igotzeko irizpideak.
- Askotariko ikaskuntza-helburuak planteatu behar dira, ikasleen gaitasunak garatzeko.
- Gehiago ikasi eta sakontzeko helburu eta jarduerak jaso behar ditu, maila aurreratuak lor ditzaketen ikasleei begira.
- Metodologia-planteamenduan kontuan izan behar dira ikasteko erritmo eta modu desberdinak.
- Ikasle guztiekiko trataera inklusiboa izan behar da, eta arreta berezia eskaini behar zaio berariazko hezkuntza-laguntza behar duten ikasleen ikasketak galaraz ditzaketen oztopoak gainditzeari.
- Itxaropen handiak eta sendoak ezarriko dira ikasle guztientzat.
- Etapa, ziklo edo hezkuntza-mailari zein ikasleen ezaugarriei egokitutako ebaluazio-prozedurak jaso behar dira. Etengabeko ebaluazioa eta ebaluazioaren objektibotasuna bermatuko dira.
- Ebaluazioak prestakuntza-helburua izan behar du, autoebaluazioa eta koebaluazioa ahalbidetu behar ditu. Askotariko baliabideen erabilera aurreikusiko da (hala nola, ikasketa-egunkariak, errubrikak, edo albumak, kontzeptu-mapak, behaketa-estrategiak, kontrol edo azterketez gain), zeinak proposaturiko ikasketa-helburuen lorpen-maila behar bezala neurtu eta ikasleen ikasteko moduetara egokituko diren.
- Aldatu ahal izango da ikasleen eta prozesuaren etengabeko ebaluazioak hala eskatuz gero.
- Gauzatutakoa aztertu eta ebaluatzeko prozedurak ezarriko dira, programazio berri bati begira, hobekuntza-proposamenak planteatzeko.
- Ebaluazio-prozedurek eta –irizpideek publikoak izan behar dute eta ikasleen eta haien familien eskura egon behar dute une oro, ikasleei zer eskatzen zaien eta eskuratutakoa noiz neurtuko den jakin dezaten.

Unitate didaktiko bakoitzean, hezkuntza-erronken proposamenak landu behar dira, esate baterako, arazo- edo integrazio-egoerak, beste arlo , ikasgai edo modulu bateko edukiekin harremanak ezarri ahal izateko eta zehar-gaitasunak eta diziplina-gaitasunak aldi berean lantzeko. Segidan zehazten den estekan, ikasgelan aplika daitezkeen gida eta baliabideak jasotzen dira, hala nola, arazo-egoerak eta unitate didaktikoak prestatzeko orientabideak eta ereduak: <https://goo.gl/OPX5t5>



Eguneroko plangintzari dagokionez, beharrezkoa da programazio zehatza egitea eta jarduerak proposatzeko unean ikasleen erritmo desberdinak kontuan izatea.

Komeni da malgutasunez jokatzea, jarduerak ezin badira aurreikusitako denboran gauzatu. Halaber, garrantzitsua da proposaturiko helburuak lortzeko egokia izan daitekeen beste edozein ikasketa-egoera baliatzea, nahiz eta aurretik planifikatu gabea izan.

Garrantzizkoa da Irakaslearen Koadernoan (ikastetxean baliabide informatiko hori erabiltzen bada) edo aipagarria iruditzen zaigun guztia jasoko duen egunkaria betetzen joatea. Kontuan izan behar da baliabide hauek lagungarri izan daitezkeela irakaslearen-lanari buruzko hausnarketa eta ebaluzioa gauzatzeko, eta ondorioz hura hobetzeko. Gainera, oso baliagarriak izan daitezke beste profesional batzuentzat: ordezkoak, aholkularia, orientatzailea, etab.

Plangintza egiteko oso lagungarri gerta liteke «Programazio didaktikoak prestatzeko gida» eta irakasleentzat eskuragarri dago Sailaren webgunean «Hezkuntza Ikuskaritza» atalean: <https://goo.gl/n2nTph>



Planifilatzekeo garaian Ikastetxean dauden koordinazio pedagogikorako talde ezberdinetan parte hartze aktiboa izatea oso inportantea da. Horretarako ikastexeak zonaldeko Berritzegunearen zen Ikuskaritzaren laguntza izan dezake.

4.3. Ikasgelako irakasle-lana

4.3.1. Klasea hasi aurretik

Klasea modu eraginkorrean gauzatzeko behar beharrezkoa da jarduerak eta materialak xehetasun guztiz prestatzea.

Erabakigarria da ikastetxera eta ikasgelara behar adinako lehentasunez iristea. Horrela denbora izango da azken orduko edozein kudeaketa-lan egin, programatutakoa berrikusi, materialak eta materialen antolaketa prestatu eta ikasleak hartzeko.

Eskola-orduan garatu beharreko dinamikaren arabera izango da ikasgelaren antolaketa eta altzarien banaketa. Ikasgelaren antolaketa helburu baten baitan dago eta irakasleak eta ikasleak irakatsi eta ikasteko prozesuan izango duten zereginaren isla izango da. Erabiliko den metodologiak espazioak eta denborak baldintzatuko ditu.

Garrantzitsua da ikasgelaren antolaketa ikasketa kooperatiboa, berdinen arteko ikasketa, partaidetza, komunikazioa, manipulazioa, saiakuntza eta hausnarketa sustatzea.

Ikasle guztiek ikasgelako edozein lekutara iritsi ahal izango dira, biltegiatze-espazioa eta beharrezko materiala eskuragarri egongo da, ikasleek inolako oztoporik gabe ikusi ahal izango dituzte eskola-aurkezpenak eta ikasleek talde malgutan lan egin ahal izango dute. Arbela erabili beharko balitz, ikasle guztiek, beren lekuetatik, ondo ikusten dutela ziurtatu behar da.

Kontuan izan beharko litzateke ikasgelaz gain bestelako lekuak ere erabil daitezkeela. Ikastetxearen beste gune fisiko batzuk balia daitezke, eta badira ikasketarako gune birtualak sortzeko aukera ematen duten baliabide teknologikoak ere. Edonola ere, prestakuntza-guneen erabilerak bat etorri behar du lortu nahi diren helburuekin.

Ikasgelako bizikidetzaren kudeaketari dagokionez, lehen eskola-egunetan denboratxo bat hartu behar da jokatzeko arauak eta moduak adosteko. Oso komenigarria da arau horiek modu positiboan adieraztea, eta ikasgelatik igarotzen diren irakasle guztiekin partekatu eta adostea. Era berean, ikasleek parte hartu behar dute araugintzan.

4.3.2. Klasearen hasiera

Ikasleei behar bezalako harrera egin eta eskola emankizuna lasai eta modu ordenatuan hasteak funtzionamendu ona bideratzen dute.

Eskolak hasteko ikasleek ezagutzen dituzten prozedura edo estrategia sistematizatuak erabiltzea eraginkorra izan ohi da. Eskola-saioaren hasiera errazten dute, zereginarekiko jarrera sustatzen dute eta segurtasuna ematen die ikasle eta irakasleei.

Txukuna eta sistematikoa izatea gomendatzen da. Saioaren hasieran, behar adina denbora hartu beharko litzateke aurreko egunean eginikoa berrikusteko, egun horretan egingo denaren berri emateko, bertaratze-kontrolerako,...

Garrantzi handia du eskola-saioaren hasieran, helburuak, haien zergatia eta lortzeko zer egingo den azaltzeak.

4.3.3. Eskola-saioan

Saioak irauten duen bitartean, kontuan izango da beti planifikatutako programazioa, ikaskuntzaren aldeko edozein egoera edo inguruabar baliatu ahal izateko malgutasunaz.

Unitate didaktikoak ulermena eta motibazio areagotuko dituzten estrategiak bilduko ditu, garrantzizkoa nabarmendu eta bigarren mailako elementuetatik bereiziz. Interesgarria litzateke beste zenbait irakasgairen edukiekiko loturak ezartzea eta hezkuntza-erronkak jasotzen dituzten proposamenak lantzea.

Ikasgaiarekiko interesa piztu behar da ikaslearengan, ikasteko pizgarriak aurki ditzan, adibide zehatzak, bere errealitatek hurbil daudenak eta eduki eta helburuei egokitzen zaizkienak eskainiz.

Gutziz komenigarria da ikasle guztien egoera emozional, sozial eta fisikoarekiko kezka eta interesa azaltzea. Ikasleek beraienganako eta beren ikasketekiko interesa sumatu beharko lukete. Garrantzitsua da ikasle guztiei eta bakoitzari maiz zuzentzea.

Jarraibide argiak eman behar dira, ikasle guztiek behar bezala egin ahal izan dezaten beren lana eta ikasgelako lanean bideratzeko. Taldearen zein norbanakoaren ulermena egiaztatu beharko litzateke, ikasle guztien beharrak, zailtasunak eta aurrerapen-maila neurtu eta diagnostikatzeko, eta, ondorioz, bakoitzari bere *feed-back* eman ahal izateko eta ikasketa-prozesuak egokitze.

Ikasgelako taldeari jarraibideak ematen zaizkionean, ahotsa altxatu gabe ikasle guztiek entzun ahal izango dituztela bermatu behar da. Zarata gehiegi badago, ikasleei adierazi behar zaie zarata-maila egokia, hots, egin beharreko lana eragozten ez duena, mantentzeak duen garrantzia. Ikasleriari zuzentzen gatzazkionean, eraginkorragoa da beti lasai egotea, zehatza izatea eta hizkuntzaren arauak errespetatzea.

Ikasleek aukera izan beharko lukete ikasketa-planean parte hartzeko eta, ahal den neurrian, ikasteko hainbat aukeren artean hautatu eta ikasitakoa azaltzeko.

Irakaskuntzan ezinbestekoa da ikasleen arteko desberdintasunak onartzea, ikasle guztiek ez baitute modu berean ikasten. Estrategiak, metodologia, jarduerak, proiektuak eta ordutegiak dibertsifikatu beharko dira, ikasle guztien eta bakoitzaren behar, gaitasun, talentu eta ikasketa-estiloari behar bezala erantzun ahal izateko.

Metodologiak, beraz, ikasle bakoitzaren ezaugarriari eta ikasteko erritmoari erantzun behar die. Askotariko ikasketa-eredu eta –estrategia erabili behar dira, hainbat baliabide eta irakats-material baliatuz, ikasgelako aniztasunari erantzuteko.

Praktikari buruzko gogoeta eta ikaskuntzarako lekuak eskaini behar dira. Garrantzizkoa da askotariko esperientzia didaktikoak proposatzea, ikaskuntza aktiboa eta ikasteko era eta erritmo anitzari erantzungo dioten hainbat estrategia intelektualen erabilera sustatzeko. Horrez gain, ikasle bakoitzaren autonomia sustatu eta bere ikaskuntza-prozesua eramaten lagundu behar zaio; beraz, oso eraginkorra izango da autoebaluaziorako eta koebaluaziorako tresnak erabiltzea.

Ezinbestekoa da hezkuntza-ingurunean informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) erabiltzea, ikasleak gara dezan, alde batetik, ezagutza-arlo propioa bezala (IKTei buruz ikastea) ulertzen den gaitasun digitala eta, bestetik, curriculum-arloetako eduki didaktiko multimediekin elkarreragiteko gaitasun digitala (IKTetik ikasi) eta, azkenik, ikasi eta ezagutza eraikitze bide den gaitasun digitala (IKTen bidez ikasi).

Eskola-saioa emateko orduan, behar-beharrezkoa da irakaskuntza-erritmo eta lan-dinamika ona mantentzea. Horretarako, saioaren buru izan behar da eta taldea ondo kudeatu behar da, kontrola mantenduz, autodisiplina sustatuz eta konfiantza- eta lan-giroa sortuz. Eskola-saioa ondo gauzatzeko ezarritako arauak argiak eta zehatzak izan behar dute, eta, ahal den neurrian, denen artean adostutakoak. Halaber, oso komenigarria da ikasleen jokaerari buruzko itxaropen ona agertzea, haiek erantzuteko gai izan daitezen.

Une oro jarrera positiboa izan beharko dugu ikasgelan, arreta ikasle guztiengan jarriz eta haien lana indartuz. Ikasleei adorea eman behar zaie beren helburua lor dezaten; eta, lortzen dutenean, saritzeko modua bilatu beharko litzateke, eginiko ahaleginaren aitortza esplizitua barne.

Oso garrantzitsua da ikaslearekiko harremanean jarrera irekia agertzea. Ikasleekiko harremanaren oinarriak, ezarritako bizikidetzaren arauen barnean, errespetua eta elkarrekiko konfiantza izango dira. Funtsezkoa da balioetan hezteak, eta errespetu-eredu izatea ikasgela barruan zein kanpoan. Ikasleek helduei erreparatuz ikasten dute behar bezala jokatzeko. La komunikazioa ez da hitzetara mugatzen. Pertsonen arteko komunikazioaren ia hiru heren hitzik gabekoa da, eta keinu, aurpegiera eta gorputz-hizkuntzaren bidez adierazten da. Adibiderik onena arazoak, gatazkak, haserrea eta estresa behar bezala kudeatzea izango da.

Komenigarria izango da erne egotea ikasleengan estresa identifikatzeko. Gaixotasuna, portaera konpultsiboak, ametsak, umore txarra eta ezinegona ikaslearen estres-adierazleak izan daitezke, eta estresak ikasketa galarazi eta portaera-arazoak sor ditzake. Ikasgelak leku atsegina izan behar du ikasle zein irakaslearentzat.

Bestalde, bizikidetzaren aldeko estrategiak eta ikasketa-giro egokia garatu behar dira, ikasgelan zein ikasgelatik kanpo. Behar bezala heldu beharko zaie bizikidetzaren arazoei, eta garrantzizkoa da haien aldeko jarduerak edo programetan inplikatzea.

Litekeena da kurtsoan zehar, uneren batean, ikasgelan hainbat motako gatazkak gertatzea. Bizikidetzak berezkoa du gatazka eta gizatalde guztietan, beraz, ikasgeletan ere, aurki daitezkeen elementu saihetsezina da. Hori dela eta, ezinezkoa da gatazkak ekiditea; aitzitik, konpontzeko sistemak sortu behar dira, gatazkak ikasteko baliabide bat gehiago izan daitezkeen eta eguneroko bizikidetzaren arautzeko. Hortaz, gatazka-egoerak baliatu behar ditugu, jokabide horiek bideratzeko ikasketa-aukera gisa.

Ez da itxaron behar ikasleekiko arazoa hazi eta konponbide zaileko gatazka bihurtu arte. Ahal bada, beti saiatu behar da egoera desegoki arinak kudeatzen, ikasgelaren dinamika eten gabe. Diziiplina-neurriak hartzen badira, helburu hezitzailea izan beharko dute, eta zerikusia izan beharko dute gertaera, nahitasun, ondorio eta norabide konpontzaile eta hezitzailearekin. Halaber, behar beharrezkoa da ikastetxeko arduradunei eta familiei jakinaraztea (ikusirik ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko Dekretua: <https://goo.gl/QM8rwt>)

Azkenik, kontuan hartu behar da ikasketa-prozedurak garrantzitsuak badira ere, ez direla berezko helburuak. Irakatsi eta ikasteko prozesua eskuratutako ikasketetan oinarritzen da, hau da, ikasleak lortutako gaitasunen garapenean.



[4.3.4. Klasearen amaieran](#)

Eskola-saioaren amaieran garrantzitsua da azken laburpen bat egitea, beharbada, kontzeptu-mapa, eskema edo ikasleen parte-hartzea eskatzen duen edozein ezagutza-antolatzaile. Horrez gain, komenigarria litzateke saioan zer ikasi duten egiaztatzea eta nola ikasi duten hausnartzeko baliabideak ematea. Azkenean, zoriondu ahal izango da ikaslea egindako lan onarengatik, eta horrek aurrerago egingo dituzten ikasketetarako adorea eman eta hurrengo saiorako behar dituzten jarraibideak emango dizkie.

4.4. Metodologia eta baliabide didaktikoak

Irakatsi eta ikasteko prozesu guztiak testuinguru batean gauzatzen dira eta beraiekin daramate metodologia bat. Estrategia metodologiko horiek, curriculumera ez ezik beste baldintzatzaile batzuetara ere egokitu behar dute, adibidez, ikasleen ezaugarrietara, gaitasun-mailara, aldagai sozial eta kulturaletara, eta abarretara.

Gaitasunak curriculumean sartzean, irakatsi eta ikasteko prozesuko unearen arabera askotariko metodoak erabiltzea egokia bada ere, metodologia aktiboak dira ikasleen partaidetza eta inplikazioa areagotzen dutenak; ikasketa sakonago, esanguratsuago eta iraunkorragoak eragiten dituztenak, eta eskuratutako ezagutzak testuinguru heterogeneoagoetara aldatzen laguntzen dutenak.

[4.4.1. Jarraibide metodologiko batzuk](#)

Teknika metodologikoa helburuen baitan aukeratzen da. Garrantzizkoa da aukeratzea oinarritzko gaitasunak, diziplinazkoak zein zeharkakoak, modu eraginkorrenean garatuko dituzten teknika metodologikoak, ikasleriaren aniztasunera egokituko direnak, ikastera motibatuko dutenak, egoera erreal eta esanguratsuak planteatuko dituztenak, ikaslea haien partaide aktibo bihurtuko dutenak, baliabide teknologikoen eta askotariko informazio-iturrien erabilera integratuaren aldekoak, ebaluazioa bultzatuko dutenak, eta autonomia eta inklusibitatea sustatuko dutenak.

Modu pasiboan eskuratutako ikasketak, hau da entzun edo egiten ikustean oinarritua, denbora gutxi irauten du, eta sarritan eragin gutxi du aldaketa kognitiboen lorpenean eta gaitasunen garapenean. Ikaskuntza prozesu bat da eta ikasleek parte aktiboa hartu behar dute ezagutzak, modu esanguratsuan, eraiki eta barneratzeko.

Garrantzitsua da irakasleekin hitz egitea erabilitako metodologia eta estrategia pedagogikoei buruz, aukeraketarako arrazoiak azalduz. Era berean, ikasleei ere informazio horren berri emanez, beren ikaskuntzarekiko interesa azalduko diegu.

4.4.1.1. TALDEAN IKASTEA LEHENESTEA

Talde-lana funtsezkoa da ikasleek kontzeptuak eztabaidatu, elkarrekin lan egin, haien hipotesiak alderatu eta informazioa trukatzeko ahalbideratuko duen hezkuntza-ingurune bat sortzeko.

Ikaskuntza kooperatiboa aukera metodologiko ona da. Talde heterogeneoen lana eta elkarrizketa eraikitzailea oinarri dituen ikaskuntza

kooperatiboaren erabilera sistematikoak, bizikidetzaren harremanak eta ikasgelako-giroa hobetzeaz gain, eragin handi du kalitateko ikaskuntzaren lorpenean.

Garrantzi handia du taldean lan egiten ikasteak; beraz, hasieran arauak eta ardurak ezartzea.

Komenigarria da taldeak heterogeneoak izatea, aukeran 6 ikasle baino gutxiagokoak, lan-dinamika sendotu arte behintzat; zailtasun gehien duten ikasleak lagun diezaieketen pertsonen osatutako taldean kokatuko dira. Komeni da taldeak osatzeko erabilitako irizpideak azaltzea.

Lan-helburuak, pixkanaka, aldatzen joan daitezke hasierako egoera batetik, zeinetan modu indibidualean eginiko lanari buruzko zalantzak jaso edota konpondu, zailtasunari buruz eztabaidatu, eta irizpideak partekatu, alderatu eta batzen diren, fase aurreratuago batera iritsi arte, zeinetan, denen artean, plangintza, ikerketa-lana, eztabaida eta hainbat zeregin gauzatu, proiektuak landu, erronka-arazoak konpondu eta azkenik emaitzak jakinarazten diren.

Lan-dinamika hori ikasle guztientzat da motibatzailea, denak garrantzitsuak dira, denek egiten dute ekarpenen bat, eta kontuan hartu behar dira denen trebetasunak. Ikuspuntuak, ezagutzak, trebetasunak... partekatzeko eztabaidak benetan aberasgarriak eta eraginkorrak dira ikaskuntza-prozesuan.

Hona hemen planteamendu metodologiko horrekin bat datozen zenbait teknika:

- a) **Ikaskuntza kooperatiboa.** Ikaskuntza kooperatiboa taldekideen talde-lanean oinarrituriko ikaskuntza-metodoa da. Taldeko ikasle guztien ardurapeko hainbat helburu komun lortzearen, elkarrekin lan egiteko teknikak biltzen ditu.

Lan kooperatiboari ekiterakoan, hainbat ikuspegi aurkitzen ditugu: Jigsaw (Aronson eta kolaboratzaileak); Taldeak-ikerketa (Sharan eta Sharan); Puzzlea (Slavin); Elkarrekin ikasi (Johnson eta Johnson); Elkarrekiko irakaskuntza (Palincsar eta Brown); Co-op (Kagan) eta IK/KI (Pujolàs).

Ezin esan daiteke aldaera bat besteak baino hobea edo egokiagoa denik; kontua da ikasle-talde eta landu beharreko jardueraren arabera, gure beharretara gehien egokitzen dena aukeratzea.

Edonola ere, komeni da taldekideen rolak zehaztea. Ikasle bakoitzak jakin behar du zein den bere zeregina eta ardura taldean. Zenbait rol:

- *Idazkaria*: oharrak hartu eta taldearen azken emaitza idazteaz arduratzen den pertsona da (adostutako konponbidea, partekatu dituzten zalantzak etab.).

- *Denbora-kontrolatzailea*: taldeak ez duela arreta galduko eta helburuak landu eta bere zeregina aurreikusitako denboran bukatuko duela ziurtatu behar duen pertsona da.

- *Koordinatzailea*: taldekide guztiek zeregina ulertu, parte hartu eta ekarpenak egiten dituztela egiaztatzen duen pertsona da. (bereziki garrantzitsua talde-ebaluaziorako estrategiak direnean)

- *Bozera mailea*: taldeak hartutako erabakiak, izan dituen zalantzak, jarraitutako metodologia, etab. jakinarazten dizkie gainerako taldekideei.

- b) **Solasaldi dialogikoak**. Ikaskuntza dialogikoaren ikuskera komunikatiboan dute oinarria: pertsonen arteko elkarreraginak eraikitzen du gizarte-errealitatea.

Horretarako testu baten irakurketa eta hari buruzko ondorengo hausnarketa proposatzen da. Gauza bat azaltzen dugunean lortzen dugu hura ondoen ikastea. Zenbat eta hobeto geuregatu testu bat gehiago motibatzen gaitu, eta orduan hitz egiten dugu irakurri duten beste batzuekin.

- c) **Talde elkarreragileak**. Ikaskuntza nabarmen ahalbideratzen duen beste baliabide bat talde elkarreragilea da. Ikasgela 4 edo 5 ikasleko talde txikietan antolatzen da. Talde bakoitzean, heldu batek egin beharreko lana dinamizatzeko ardura du, taldekideen arteko elkarreragina sustatuz. Eskola-saioak irauten duen bitartean, ikasle guztiek talde txikietan programatutako jarduerak burutzen dituzte.

- d) **Proiektuen bidezko lana**. Proposamen honetan, ikasleek garatu behar duten proiektu bati aurre egiten diote. Proiektuaren garapena galdera sortaile batek abiarazten du; galdera horrek ez du informazioan soilik oinarrituriko erantzun erraz bat izango; aitzitik, zenbait aukera aztertu beharko ditu, zeregin bat egiteko bide eraginkorrena bilatu, ebidentzia alderatu, jatorrizko ideia berraztertu, plan bat landu edo argudio baten alderdi nagusienak laburtu beharko ditu.

Hezkuntza-erronkak, hala nola integrazio-arazoaren inguruko egoerak, planteatzeak bereziki motibatzen ditu ikasleak, oinarrizko zeharkako kompetentzia eta diziplina-kompetentzien lan integratua errazten dute.

4.4.1.2. AZALPEN-KLASEAK

Hainbat ikerketak erakutsi du azalpen-eskola hasi eta handik 15 edo 20 minutura arreta-maila nabarmen jaisten hasten dela, eta atentzioa pixka bat berreskuratzen dela ikasleek eskola-saioa bukatzen ari dela antzematen dutenean.

Beste ikerketa batzuk erakusten dute, oro har, eskola eman eta egun gutxiren burura, eduki guztiak ahaztu egiten direla.

Beraz, estrategiak garatu beharko lirateke ikaskuntza eraginkorragoa lortzeko, eskola aktiboagoak izatea eta ikaslearen interesa piztea ahalbideratuko duten estrategiak hain zuzen ere. Adibide gisa, honako hau egin daiteke:

- Plantea daitezke ikasle guztien parte-hartzea eskatzen duten eta landutakoa berehala praktikan jartzea errazten duten jarduerak eta zereginak.

- Proposa daiteke garrantzitsuenari eta zailenari buruzko hausnarketa. Bakoitzak azken azalpeneko ideia nagusia eta zailena edo nahasiena idatz ditzake. Ondoren, eskola-saioa bukatzean, jaso eta aztertu egingo dira. Horrela, materialari buruzko gogoeta egiteaz gain, lortu nahi diren edukien eskuratzeko-mailari buruzko informazioa lortuko da. Datu horiek guztiak oso lagungarriak izango dira hurrengo saioaren prestaketa bideratzeko.
- Eska diezaiekegu ikasleei, taldeetan bilduta, azken azalpenean landutakoari buruzko galderak prestatzeko. Ondoren, bi edo hiru taldek galdera irakurriko dute, eta, hurrengo azalpen-blokeari ekin baino lehen, ikasgela osoarentzako erantzuna emango dute. Bukatzeko galdera guztiak bilduko eta aztertu egingo dira beste saio baterako adierazpen orokorrak prestatzeko.
- Proposatu ahal dizkiegu ikasleei taldean erabakitzeko zenbait jarduera, aurreko azalpenenetan ikusitako materiala baliatuz. Denbora emango zaie bakarka erabakitzeko, baina baimena emango zaie zalantzak ikaskideei edo irakasleari kontsultatzeko. Behin erabaki ondoren, 3 edo lau ikasleko taldeak osatuko dira; lehen elkarrekin ez zeudenak izan beharko dute; eta bakoitzak bere konponbidea ezagutzera eman eta arrazoitu beharko du. Alderatu eta ados jarri beharko dira, idatziz konponbide bat emateko.

4.4.2. Baliabide didaktikoak

Irakasleari bere lana errazteko asmoz sortutako edozein material har daiteke baliabide didaktikotzat. Baliabide didaktikoak ikasketa-gidak dira, izan ere adierazi nahi dugun informazioa antolatzen eta trebetasunak lantzen eta garatzen laguntzen digute. Motibazioa piztu eta indartzen dute, eta edukiari buruzko interesa sortzen dute; une oro ikasleen ezagutzak ebaluatu ahal ditugu eta ikaslearen adierazpena sustatzeko aukera ematen digute.

Askotariko baliabide didaktikoak erabili beharko dira, edukiak ikuspegi desberdinetatik lantzen lagunduko dutenak eta ikasleen ikasteko moduetara moldatuko direnak, hainbat estrategia intelektual eta gaitasun desberdinen erabilera sustatuz.

On-line baliabideak ere aukera handiak ematen dituzte. Hala ere, beti baieztatu beharko da nondik datorren, fidagarria eta kalitatekoa dela ziurtatzeko.

4.5. Ebaluazioa

Ebaluazioaren helburu nagusia ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuko lorpen eta zailtasunei buruzko informazioa biltzea da, hezkuntza-helburuen betetze-maila baloratu ahal izateko eta bere hezkuntza-garapenean laguntzeko; bide batez, beharrezkoa balitz, irakatsi eta ikasteko prozesua bideratzeko.

Beraz, ebaluazio-prozesuak bere baitan biltzen du ikasleari lagundu eta berreskuratzeko prozedurak diseinatu eta aplikatzea, eta irakatsi eta ikasteko prozesuan hobekuntzak egitea, batez ere, ez bada emaitza positiborik lortu.

Irakaskuntza eta ebaluazio-prozesuak nahitaez hartu behar dituzte kontuan araudi orokorraren arabera ebaluazio-, kalifikazio- eta sustapen-irizpideak (unean uneko curriculumari buruzko dekretuak eta ebaluazio-aginduak) eta ikastetxearen arabera (Ikastetxearen Kurrikulum Proiektua, programazio didaktikoak...). Garrantzitsua da haien berri ematea ikasleei zein familiei, zer, nola eta noiz ebaluatuko den adieraziz.

Gure curriculuma oinarrizko gaitasunetan oinarritzen denez, ebaluazio-gaiak irakaskuntza-maila bakoitzari egoki mailakatutako ezagutza, trebetasun eta jarrereri eragingo dien ikuspuntu integrala eskatzen du. Konpetentzia “testuinguruari egokitzen zaizkion ezagutza, gaitasun eta jarreraren konbinazioa” eta “testuinguru jakin batean zeregin bat eraginkortasunez burutzea” dela ulertzen da; beraz, konpetentzia horiek garatu ahal izateko dagozkien zenbait ezagutza asimilatu eta guztiak, testuinguru jakin batean, elkarren artean erlazionatuta erabiltzen ikasi behar da. Ildo horretatik gaitasunen arabera ebaluatzeak berarekin dakar arazo-egoeren ebazpenerako prozesuak ebaluatzea.

Beraz, ikasleen ezagutzak ebaluatuko dira oinarrizko gaitasunen eskuratzemilaren baitan, kontuan izanik ebaluazio-irizpideak. Ebaluazio-irizpide horiek argiak izan behar dute eta kontuan hartu behar dira irakatsi eta ikasteko prozesu osoan.

Ebaluazioak, alde batetik, prestakuntza helburua izan behar du (prozesuak hobetzeko orientabideak ematen dituen ebaluazio-prozesura bideratua), eta bestetik, batutzailea izango da (eskuratutako lorpenak ebaluatzerara bideratua).

Hori dela eta, unitate didaktiko osoan zehar ikasleak eginiko aurrerapena baloratzeko ebaluazio-teknika egokiak, hasierako, prozesuan zeharko eta amaierako ebaluazioa ahalbideratuko dutenak, erabiliko dira.

Garrantzitsua da ikasleei autoebaluazioa eta ebaluazio partekatua egin ahal izateko prozedurak ematea, irakasleek egindako ebaluazioaren osagarri gisa. Horretarako, balorazio-irizpideak eman eta ikusitako jardunbide egokiez hitz egingo da taldean.

Ebaluazio-tresnak askotarikoak eta zehatzak izango dira, ikasleek eskuratutako ezagutzak eta oinarrizko gaitasunen garapen-maila, zein balizko zailtasun eta premiak zehaztasunez eta objektiboki jakiteko.

Hona hemen adibide batzuk: proba idatziak, ahozko probak, grabatutako probak, eztabaidak, elkarrizketak, galdera-sortak, banako eta taldeko lanen azterketak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, errubrikak, ikasgelako koadernoak, koaderno edo albuma, kontratu didaktikoa...

Hona hemen horietako batzuei buruzko xehetasunak:

- a) **Proba idatziak.** Ez du, inongo hezkuntza etapatan, ebaluazio-tresna bakarra ezta nagusia ere. Azterketa edo probak diseinatzean kontuan hartu behar da ikasgelan landutakoa. Ondo jakin behar da zer neurtu nahi den eta zer egin behar den argi utzi.

Garrantzitsua da denborak doitzea eta, ahal den neurrian, enuntziatuak erraztea, ez bada haien ulermen-maila ere neurtu nahi behintzat.

Azterketa, probak, ariketak edo lanak diseinatzerakoan, komeni da zuzenketa nola egingo den pentsatzea. Kalifikazio-irizpideak ahalik eta argienak eta zehatzenak izan behar dute, zuzenketa ere al bait argien eta zehatzen egin ahal izateko eta ahalik eta interpretazio gutxien sor ditzan.

- b) **Koaderno edo albuma.** Koaderno edo albumean (digitala izan daiteke) ikasleak egin dituen ikasketa, eduki, banaka eta talde lan, burututako proiektu eta abarren bilakaera jasotzen da. Tresna horretan, bakoitza egiaztatzen joan daiteke zer maila lortu duen lantzen ari diren gaitasun jakin batzuetan.
- c) **Ikasketa-egunkaria.** Ikasketa-egunkaria ikasleak egiten duen egunkari bat da ikasketa-prozesuan zehar bizi izan dituen esperientziei buruzko hausnarketak jasotzeko. Tresna hori autoebaluazio kualitatiborako tresnarik interesgarriena da.
- d) **Ikasgelako behaketa sistematikorako tresnak.** Behaketak teknika erraza badirudi ere, zailago bihurtzen da irakatsi eta ikasteko prozesuei buruzko informazioa eskuratzeko erabiltzen bada. Behaketa sistematikoa, emankorra eta objektiboa izatea nahi badugu, ikasgelaren ezaugarriei egokitzen zaizkion tresnak eta lortu nahi diren helburuekin bat datozenak beharko ditugu. Errubrikak, erregistro-orriak, ibilbidearen egunkaria etab.

4.6. Hezkuntza inklusiboa eta aniztasunari arreta

Inklusioak, gizarteak– eta, haren barruan, eskolak– aniztasunari erantzuteko modua adierazten du. Errealitatean, hezkuntza-erantzunaren ardatza, ikaslea bakarrik izan beharrean, ohiko eskola-testuingurura zabaltzea dakar.

«Eskola inklusiboa da haur eta gazte guztientzat kalitatezko hezkuntza, ez nolana hiko, aukera berdinekoa, bidezko eta zuzena bermatzen duen eskola» [Ainscow, Booth eta Dyson, 2006; Echeita eta Duk, 2008].

Ikastetxeetan gizarteko aniztasuna islatzen da: kultura-aniztasuna, gaitasun-aniztasuna, dibertsitate funtzionala, joera sexualen aniztasuna, genero-aniztasuna, aniztasun sozioekonomikoa,... eta hori guztia baloratu eta baliatu behar da irakatsi eta ikasteko prozesua aberasteko aukera gisa.

Jardunbide inklusiboak garatzeak irakatsi eta ikasteko prozesuari, ikastetxeko eta eskola-komunitateko baliabideen antolaketa eta plangintzari, bizikidetzaren positiboan egiten den lanari eragiten die, eta ikastetxeko profesional guztien gogoeta bateratua du oinarri.

Gehienok onartzen dugu ikasketa beste pertsonetikiko elkarreraginean gauzatzen dela eta hobetu egiten dela testuinguru desberdinetan sortzen diren ikasketen artean jarraipena badago. Berdinak ikasketarako oso bitartekari aktiboak dira eta funtsezko lagungarriak ikasle guztien inklusiorako.

Ikasgelako metodologia, irakaslearen rola, eta hark ikasleengan jarritako itxaropenak guztien arrakastarako funtsezko faktoreak dira. Testuinguru horretan ikusi behar da ikasleen heterogeneotasuna talde/ikasgelaren ohiko egoera gisa, harreman positiboak eraikitzeko eta berdinen arteko partaidetza eta elkarreraginaren sustapenean duen garrantziarengatik.

Hezkuntza inklusiborako aukera ematen duen leku nagusia ohiko ikasgela denez, beharrezkoa da, lankidetzeta eta talde-lanaren irizpideei jarraituz, ikasle bakoitzak behar izan ditzakeen baliabide eta laguntza espezifikoak edo osagarriak antolatzea, eta, batez ere, egoera berezian, ahultasun egoeran eta eskola eta inguru akademikora egokitzeko zailtasun gehien dituztenei bideratuak.

Gomendagarria da ikerketek bermatutako estrategia eta metodologia parte-hartzaileak erabiltzea, hala nola, berdinen arteko laguntza, ikasgelan bi irakasle aldi berean jardutea, talde interaktiboak, ikaskuntza kooperatiboak, elkarrizketa bidezko solasaldiak, tutoretza pertsonalizatuak, irakaskuntza dibertsifikatua, lankidetzeta bidezko ikaskuntza, curriculumak aberastea, hezkuntza-errefortzurako proposamenak, irakaskuntza pertsonalizatzea... ikasgelako programazioen testuinguruan.

Garrantzitsua da aniztasunari erantzuteko programetan parte hartzea, ikastetxeko orientatzaileak, aholkulariek eta zuzendariak ezarritako jarraibideei jarraituz.

Jakin behar da ikasgeletan eta ikastetxeetan berriazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak daudela:

- desgaitasunaren edo jokabide-nahaste larriaren ondorioz, berriazko hezkuntza-laguntza premiak dituzten ikasleak.
- ikasteko zailtasunak dituzten ikasleak
- adimen-gaitasun handiak dituzten ikasleak
- egoera pertsonal edo eskolako historiarengatik berriazko beharrak dituzten ikasleak.
- desberdintasun soziala pairatzen duten ikasleak
- hezkuntza-sistemara berandu sartu diren ikasleak

Familiekin, batez ere zailtasun gehien duten ikasleen familiekin, lankidetzeta-harreman estua izan behar da. Seme-alabekin batera parte har dezaketen proiektuetan inplikatu eta laguntza eta eskarmentuak trukatzeko egiturak sortzera bultzatu behar dira. Familiekin harreman onak, seme-alaben gaitasun-garapenean eta ongizatean positiboki eragiteaz gain, sor litezkeen zailtasunak konpontzen lagunduko du. Garrantzitsua da familiak laguntza-taldeein eta eskola, Udal edo erkideko zerbitzu bereziei buruzko informazioa izatea.

4.6.1. Berdintasuna eta hezkidetzak-eskola

Irakasle guztiek lan egin behar dute beren ikasleen jarrera sexistak murrizteko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-balioak sustatzeko, ikasgeletan egon daitezkeen botere-harremanak desagerraraziz. Helburu horrekin beharrezko aldaketak egin beharko dira berdintasunezko gizarteratzea bermatzeko, non identitate desberdinak errespetatu eta ikasleen, neska zein mutilen, garapen pertsonala ahalbidetuko den.

Berdintasunaren alde lan egiteak hezkidetzak-eskolaren ereduan sakontzea dakar, genero-ikuspegia ikastetxearen eta ikasgelaren jardura orokorrean txertatzea, ikasleak orientatzea bizitzan, ikasketetan eta lanbidean bide egokia aukera dezaten, askatasuna eta aukera-aniztasuna errespetatzea eta genero-baldintzapenik gabe; eskola-porrotari heltzeko orduan genero-ikuspegia sartzea, eta hezkuntza-sistemarako sarbide unibertsala dagoela bermatzea, sexu-aniztasunean eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean oinarrituriko harreman afektibo eta sexu-erako eta bizikidetzarako hezteak eta genero-indarkeria prebenitzeak, kasuak goiz hautemanen eta biktimei arreta eraginkorra emanez.

Ekidin behar da hizkuntza sexistaren erabilera eta ikasleei zeregin estereotipatuak proposatzea. Aitzitik, ahalegin berezia egin behar da ikaslea ezohiko roletan jartzeko.

Itxaropenak berdinak izan behar dute ikasle guztientzat eta arlo guztietan. Sexu biek izan dezakete arrakasta edozein ikasketak-arlotan (irakurketa, matematika, zientzia, teknologia, ...). Adibideek neutroak edo parekideak izan behar dute, eta bi sexu-erako pertsonak protagonista dituen gai eta gertaera jaso behar dituzte. Materialeak, liburuek, karteak eta bestelakoak berdintasuna sustatu behar dute. Horrez gain, saihestu behar da ikasgelan ikasleen generoaren araberrako taldeak egitea.

Irakasleak egin eta esaten duenaren bidez berdintasun-adibideak emango ditu.

Garrantzitsua da ezagutu eta kontuan hartzea *“Hezkuntza sisteman hezkidetzak eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko Gida-Plana”* <https://goo.gl/g3ov7v>



4.6.2. Gure hezkuntza sisteman sartu eta hizkuntza-arazoak dituzten ikasleak

Ikasle bat hezkuntza-sistema, kultura eta hizkuntza berri batean sartzen denean denbora eta ikaskideen laguntza handia behar izaten du egokitze-prozesuko zailtasunak gainditzeko. Beraz, funtsezkoa da prozesu hori erraztea.

Komenigarria da lehen egunetan gida modura lagunduko dion ikasle bat “berdinen arteko tutore” izendatzea. Ikasle berriak harrera bero bat ematea, bere familiak deitzen dion bezala deitzea eta bere ama-hizkuntza erabiltzea agurtzeko, mapa eta etiketetan. Komenigarria litzateke etxera eramango dituen oharrak itzultzea.

Garrantzitsua izango da ohiturak ezartzea eta eskatzen zaizkion zeregin eta jarduerak deskribatzeko hizkuntza bereziki zaintzea.

Gelan hizkuntza berean hitz egiten duten zenbait ikasle baleude, elkarrekin bere hizkuntzan hitz egiten utzi ahal diegu, baina beste ikaskideekin elkartera bultzatuz. Gelan irakasteko erabili ohi den hizkuntza ondoen erabiltzen dutenek besteei lagun diezaiekete. Lehentasunetako bat besteek onartzen dutela ikustea da; beraz, erraztu behar da ikasgelan ikasleek elkarrekin lan egitea eta atsedendietan taldean parte hartzea.

Ziurtatu behar dugu ikasle horiek ikasgelako zereginetarako material guztia dutela, kontuan izanik, beharbada, familiak ez duela ulertzen edo arazoak dituela emateko.

Beste kultura, hizkuntza eta herrialdeetatik datozen ikasleen familiak ikastetxeko dinamikan inplikatu behar dira. garrantzitsua da jakitea zer espero duten ikastetxearengandik. Gonbidatu behar dira ikastetxeko bizitzan, guraso-elkartean, Ordezkaritza Organo Gorenean, ... parte hartzera, eta beren seme-alabei laguntzeko jarraibideak eman behar zaizkie.

Halaber lagun diezaiekegu bere hizkuntzan hitz egin ahal izateko estrategiak (itzultzailea), kultura ezagutzeko saioak, beste pertsona edo elkarte batzuen laguntza etab. eskainiz. Zure ikastetxeko Orientabide Sailak eta zonaldeko Berritzeguneak badute egoera hauei aurre egiteko material lagungarria.

4.7. Tutoretza eta familiekiko lankidetzak

Tutoretza-lana irakaslanari atxikita dago eta ikaslea bere garapen integralean bideratu eta laguntzen du, izan ditzakeen arazoak konpontzen lagunduz. Garrantzitsua da ikasleak tutorea hurbil sentitzea, izan ditzakeen zailtasunen berri emateko eta behar duen laguntza eman diezaion.

Funtsezkoa da besteekiko harremanetarako gizarte-trebetasunak garatzea, ikasle eta familiengan konfiantza eta lanarekiko estimua sortuz. Isilpekotasun zaindu behar da.

Ikasle bakoitzak babesa eta aholkularitza eduki behar du. ikasleekiko harremana naturala izango da, eta kontuan hartuko dira haien ezaugarri eta beharrak, alderdi akademikoei zein pertsonal eta emozionalei dagokienez. Ikasle bakoitzari laguntzeko iradokizunak edo ideiak proposatuko dira beti.

Talde-tutoretza baten titularra izanez gero, talde-tutoretzaren edukia garatuko da, Ikastetxearen Tutoretza Planak ezarritakoaren arabera. Halaber, planean ezarritakoari jarraituz, eskolak ematen dituen taldeko tutorearekin lankidetzan jardun beharko du. Irakasle-taldeak hartutako erabakiak kontuan izan beharko dira jardueren eta ikasgela-taldean jasotako jarraibideak bat datozela bermatzeko. Beharrezkoa da lan egitea kohesioa lortzeko eta pertsonen arteko harremanak hobetzeko ikasgela-taldean.

Talde jakin baten tutoretza izan ezean ere, familiekiko komunikazio naturala eduki behar da, beren seme-alabek ikasketetan egiten dituzten aurrerapenen berri izan dezaten. Garrantzitsua da ikasturtean bi edo hiru aldiz pertsonalki familiekin hitz egitea. Zure ikasgela-taldearen tutoreari elkarriketa horien berri eman.

Lehen pausua eman behar da familiak inplikatzeko, ikasle bakoitzaren ikaskuntza hobetzeko lankidetzajarraibideak emanez eta ikasleen hezkuntza-prozesuan koordinazioa bultzatuz. Plan bideragarri eta egoki bat garatu behar da. Gogoratu adostutako konpromisoak amaieraino eraman beharko dituzula, adibidez, ikasteko kontratuak, eta familia guztiekin hitz egin beharko duzula, ez soilik zailtasunak dituzten edo ikastetxean arazoak sortzen dituzten ikasleen familiekin. Balizko irtenbideak proposatu eta familiei entzuteak egon daitezkeen zailtasunei aurre egiteko bestelako ikuspuntuak eta garrantzizko informazioa eskainiko dizkigu, eta, aldi berean, familia horiengan konfiantza eta aitortza eragingo du.

Bilerak arreta handiz antolatu behar dira. Programan ezarritako bilera-orduak mantendu behar dira, eta kontuan hartu behar da beharbada guraso edo tutore asko lantokian baimena eskatuta bertaratu direla. Komeni da bileraren hasieran eta amaieran adierazpen positiboak egitea, betiere gurasoei laguntza eskertu eta iritzia eskatuz.

Familiekiko komunikazioari dagokionez, garrantzitsua da jakinaraztea noiz eta nola jar daitezkeen harremanetan tutore edo irakasleekin. Telefono bidezko elkarrizketetan beharrezkoa da identifikatzea eta ikaslearen arduradunekin hitz egiten ari garela ziurtatzea. Deiazen arrazoiak azalduko da, argitasunez, eta frogatutako jarrera eta ekintza objektiboak eta ez iritziak adieraziz.

Ezinbestekoa da izandako bilera, komunikazio eta elkarrizketen eta baita hartutako erabakien erregistroa jasotzea, mezu guztien kopia gordetzea eta komunikatzeko bideak sustatzea.

Beharrezkoa da zuzendaritza- edo irakasle-taldeari jakinaraztea, ikasleak edo haien familiak egoera bereziren batean baleude eta irakatsi eta ikasteko prozesurako edo ikasleen eskubideen babeserako aipagarria balitz. Behar beharrezkoa da irakasle-taldeko kide guztien arteko koordinazioa erabaki bateratuak hartu, kontraesanetan ez erori, eta behar bezalako esku hartzeko.

Ikastetxe guztietan dago aholkulari edo orientatzaile figura, zeinak hezkuntza-premiak identifikatzen lagunduko duen, psikopedagogia-gaiei buruzko aholkularitza emango duen, familiei beren hezkuntza-zereginen lagunduko dien, tutoretza koordinatuko duen edota etengabeko prestakuntzarako jarduerak proposatuko dituen.

4.8. Partaidetza, talde-lana eta koordinazioa

Ikastetxeak ondo funtziona dezan, ezinbestekoa da bertako langile guztien arteko harremanak onak izatea. Talde-lana eta koordinazioa behar-beharrezkoak dira hezkuntza-lan eraginkorra egin ahal izateko.

Iritziak azalduko dira lankidetzajarra eta besteen iritziekiko errespetu giroan, aholkuak iradokizunak eta kritika eraikitzaileekiko jarrera irekia azalduz.

Ikasteko jarrera irekia eta pazientzia eduki behar da, zurearekin bat ez datozen iritzi profesionalak alderatzeko argudioak eskainiz.

Garrantzitsua da ikastetxeko hezkuntza-jarduerak diseinatu eta abiarazten laguntzea, parte hartzen duzun koordinazio pedagogikorako organoaren baitan. Halaber, zuzendaritza-taldearekin lankidetzajarra aritu ahal izango duzu, hark ikastetxearen funtzionamendua eta bere hezkuntza-jarduerak behar bezalakoak izan daitezkeen bultzatutako ekimenen garapenean lagunduz. Jakin behar da

ikastetxera irisi berria den irakasleari bestelako kargu bat esleitu ahal zaiola (ziklo-arduraduna, jangela-arduraduna, proiektu-koordinatzailea etab.), ez duela zertan beti irakasle-lana bete behar.

Hezkuntza-laguntzako profesionalak ere ikasleen ikaskuntza-prozesua hobetzeko lan egiten dute. Beren aholkuak eta ekarpenak oso garrantzitsuak dira, izan ere erabakiak hartzeko lagungarria den ikuspegi teknikoa eranstean dute.

Funtsezkoa da eskola-komunitateko kide guztien arteko koordinazioa, harreman ona, lan-giro egokia, eta lankidetzaren eta bizikidetzaren giro egokia sustatzea. Jardunbide egokiak partekatzeko jarrera positiboa eta irekia eduki behar da, hobetzeko proposamenak eginez eta lankideen lana errespetatu eta baloratuz.

Lanaren zati bat OOGk onartu eta Ikastetxearen Urteko Planean jasotako eskolaz kanpoko jardueretan eta osagarrietan lagundu eta parte hartzea izango da.

Beharrezkoa da esku hartzen den ikasgela-taldeetako ikasleekiko lankidetzaren eta koordinazio-maila egokia mantentzea, ikasi eta irakasteko prozesuko irakasleen jarduketan koherentzia eta bateragarritasuna areagotuz.

Kide anitzeko organoren bateko partaide izanez gero (OOG, klaustroa, batzorde pedagogikoa, saila, zikloa, ikasgela-taldeko irakasle-taldea), akordioak lortu eta haietatik ondorioztatzen diren erabakiak eta jarraibideak betetzen lagundu behar da, antolatutako bilera guztietara garaiz joanez.

Ezagutu eta aplikatu behar dira ikastetxeko koordinazio-egitura eta egitura parte-hartzaileetan adostutako arauak eta irizpide erkideak.

Arazo, gatazka eta ezustekoei behar bezala erantzutea erronka profesionala da eta oso aberasgarria izan daiteke.

4.9 Irakaslanari buruzko prestakuntza eta gogoeta

4.9.1. Jardunean diren irakasleen prestakuntza

Edozein esparrutako profesionalak jarraitu behar du bere lan-bizitza osoan prestatzen. Irakasleen azken helburua bere ikasleak gero eta hobeto prestatzea eta heztezea da, ezagutzaren eraikuntzaren buru izanez, sortzen diren arazoekiko erne egonez eta curriculum-esparruetan eta esparru didaktiko pedagogikoetan eguneratuz.

Irakasleak irekia egon behar du emaitza onak ematen dituzten esperientziak lantzeko, eta prestatuta egon behar du gizarteak hezkuntza-sistemari eskatzen dionari aurre egiteko, etengabeko bilakaera duten lan-baldintzetara egokituz.

Ildo horretatik, bereziki garrantzitsua da prestatzen jarraitzea. Irakurtzeak, solasaldiak eta hausnarketa pedagogikoetan parte hartzeak, etengabeko prestakuntzan parte hartzeak, taldean lan egiteak, egindakoa partekatzeak; lankideekin batera lan egiteak, bakarkako metodo berritzaileetan konpromisoa hartzeak eta abarrek helburu hori lortzen lagunduko du.

Prestakuntza bideratu behar da irakaskuntza-gaitasuna eta hezkuntza-jarduera prestatzera eta ikastetxeak hartutako lan-ildo eta helburuak lortzera. Zentzu horretan jakin behar da prestakuntza eraginkorra berdinen artean eta ikastetxean bertan egiten dena dela.

Prestakuntzak etengabea izan behar du, eta benetan eraginkorra izan dadin etengabeko eta jarduneko ikerketaren ikuspuntutik planteatu behar da, hau da, ziklikoki, eta aplikazio praktikoan oinarrituz.

Lehenik eta behin arazoa edo hobetu beharrekoa hauteman behar da, ondoren azertu egingo da; ikuspuntu teoriko eta praktikotik ikertuz; saiakuntzak egin, arazoari heltzeko praktika berriak ezarriz edo baliabide berriak erabiliz, eta azkenik ebaluatu egin behar da, zer egin den, zergatik, zer baliabide erabili diren, etab. aztertuz. Eta berriro hasi behar da, gure indargune eta gabeziez jabetuz, lehenak indartu eta bigarrenak arintzen saiatzeko.

Bestalde, arrazoi askorengatik egoerak aldakorrek direnez, ikastetxeko etengabeko eta jarduneko ebaluazioak sor dakigukeen edozein beharrian berriren aurrean erne mantenduko gaitu

4.9.2. Prestakuntza-motak

Ikastetxeak prestakuntza-plan bat prestatuta eduki behar du, Urteko Memorian edo Planean jasotako hobekuntza-premia edo -proposamenei aurre egiteko beharrezko gaitasunak eskuratzeko.

Prestakuntza motak asko dira, eta, gainera, elkarrekin konbina daitezke daitezke:

- a) **Kanpoko aholkularitza.** Hasierako prestakuntza bat egiten da, eta ikerketa-prozesuetan laguntzen da, partaide bakoitzaren prestakuntzan eragiten duen gogoeta-akzioaren ereduari jarraituz.
- b) **Lantalde edo –batzordeak.** Taldeen premia edo interesak aztertzen dira eta, haiek oinarritzat hartuz, prestakuntza egokiena (taldean edo bakarka) burutzeko metodoak eta moduak bilatu eta adosten dira, kasu bakoitzari dagokion aholkularitza erabiliz.
- c) **Beste ikastetxe batean edo sarean egiten den prestakuntza.** Proiektu bera lantzen ari diren ikastetxeetan, bisita, egonaldi, truke... eta abarren bidez, egiten den irakasle-prestakuntzak esperientzia eskarmentu eta jardunbide berritzaileak alderatu eta partekatzeke balio du.
- d) **Jardunaldi, mintegi eta ikastaroak.** Hezkuntza-administrazioak, laguntza-zerbitzuek, erakundeek eta elkarteek prestakuntza-saioak, hitzaldiak eta eskarmentuak trukatzeko deialdiak egiten dituzte.
- e) **Autoformazioa.** Hainbat informazio-iturri (hezkuntza eta bestelako gizarte-zientziei buruzko aldizkari eta liburuak, hezkuntza-gaietako datu-baseak,...) oinarri hartuta, ekarpen teoriko eta hezkuntza-esperientziei buruzko bilera eta solasaldiak antolatzen dira, bakarka edo taldeka, ikastetxeari baliagarriak izango zaizkion ekarpenei buruz.

- f) **On-line prestakuntza** (MOOC, NOOC etab.). Ikastaro irekiak, jende askorentzat. Parte-hartzaileari esploratu eta ikasteaz batera, gaitasun, trebetasun edo ezagutza-arlo bateko funtsezko elementuari buruz, denbora jakin batean, ebaluatua izateko aukera eskaintzen dio.
- g) **Berdinen arteko tutoretza** edo *peer tutoring*. Irakasleek, lankidearen lana behatu, hausnartu eta hobetzeko proposamenak egin ondoren, kideekiko harremanak ikasteko aukera bihurtzen ikasten dute eta horrek aberastasun profesionala eta pertsonala dakarkie.

4.9.3. Praktikari buruzko hausnarketa egin beharra hobekuntza lortzeko

Nahitaezkoa da, bakarka zein taldean, praktikari buruzko galderak eta hausnarketa egitea. Ezin dugu benetako profesionalak izan, ez badugu praktikari buruzko hausnarketa-prozesurik egiten. Gure lan-bizitzan erne egoten eta etengabe hobetzen lagunduko digu.

Beharrezkoa da sistematikoki ikastetxean eta ikasgelan geuk egiten dugun lanaren azterketa egitea; hots, geure praktika eta bere oinarriari buruzko gogoeta eta azterketa ahalbidetuko digun autoebaluazioa egitea.

Errubriken bidez jakin ahal izango dugu aztertzen ari garen elementu bakoitzean zein gaitasun-maila dugun. Argi dago, nahi adina elementu azter ditzakegula; halere, badira ikaslearen ikaskuntzan eragin esanguratsua duten oinarritzko zenbait dimentsio, hala nola:

- Irakaskuntza eta curriculum planifikatu, koordinatu eta ebaluatzea.
- Xedeak eta aurreikuspenak ezartzea.
- Baliabideen erabilera estrategikoa.
- Laguntza-inguru ordenatua ziurtatzea.
- Ikaskuntza eta garapen profesionalean parte hartu eta garatzea.

Behar-beharrezkoa da jardun profesionala aztertu eta ebaluatzea ikaskuntza-irakaskuntza prozesuko hainbat unetan, eta azterketa horien ondorioz hobekuntza-arloak planteatzea. Komenigarria da ikasgelaren behaketa-saioetan parte hartzea hobekuntza-arloak hobeto zehaztu ahal izateko edo jardunbide egokiak partekatzeko, bai eta eguneroko lana zerk oztopatzen duen eta nola konpondu aztertzeko.

Zailtasunen aurrean, kexatzea baino eraginkorragoa da irtenbideak bilatzen saiatzea. Lankideekin egoera konplexuak partekatu eta alderatzea ikasteko modu eraginkorra da, eta sor lezakeen larritasuna kontrolpean mantentzen laguntzen du.

Beste gomendio batzuk: prestakuntza-saioetan parte aktiboa hartzea, eta bertan landutako esperientziak abian jartzea, berrikuntza eta etengabeko hobekuntzarekiko jarrera irekia edukitzea, ikaslearen ikaskuntza-mailarik onena bermatuko duten estrategiak bilatzen saiatzea eta erronkak onartu eta haietatik ikastea.

4.10. Kontuan izan beharreko beste alderdi batzuk

4.10.1. Elebitasuna hezkuntza eleaniztun baten barruan

Elebitasuna hezkuntza eleaniztun baten barruan Hezkuntza sailaren ildo estrategikoetako bat da..

Hizkuntzen curriculum-a integraturik egoteko, eta ikasleak bi hizkuntza ofizialetan eta gutxienez atzerriko batean komunikatu ahal izateko, ildo hauei jarraitu behar zaie:

- Hizkuntzen ikaskuntzaren oinarria inklusioa da; hau da, ikasle guztiei eleaniztasuna oso-osorik garatzeko aukera eman behar zaie, bakoitzaren ama-hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.
- Hizkuntzen irakaskuntzak erabilera oinarritu behar du, hizkuntzak erabilera sozial eta akademikoaren bidez ikasten baitira eta komunikatzeko beharrizan pragmatikoek bideratzen eta errazten baitute kodeaz jabetzea.
- Hizkuntzen irakaskuntzak komunikazioa izan behar du oinarri; hau da, ikasgela komunikazio-gune pribilegiatu bihurtu behar da, ikasleek denetarikoz komunikazio-jardueretan eraginkortasunez parte hartzeko.
- Gizarte-harremanetarako hizkuntzek duten garrantzia kontuan izanik, hizkuntzen irakaskuntzak hizkuntza eta hitzunikiko jarrera positiboaren garapena zein pertsonen emozioen garapena jorratuko ditu.
- Eskolan, batez ere curriculum-arloen irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan sortzen dira hizkuntza erabiltzeko esparru eta egoerak; beraz, zentzuzkoa da hizkuntza eta edukiak integratzea.

Printzipio horiek direla eta, komunikazio-proiektu esanguratsuek gidatutako ikaskuntza-prozesua kontuan hartzen duen metodologia landu behar da, testua oinarritzko komunikazio-unitate bihurtzen duena; horrez gain, metodologia horrek ikaskuntza komunikazio-lan bat lortzeko sekuentzia didaktikoetan antolatu behar du, eta prozedura-edukiei lehentasuna emango die. Hau da, “egiten jakitea” jakite hutsari gailenduko zaio.

Kontuan hartu behar da sarritan irakasleak direla ikasleek duten erreferente bakarra gure hizkuntzan ikasi eta bizi nahi badute. Erabakigarria da hortaz jabetzea eta, ondorioz, euskara sustatu eta bere erabilera zaintzea.

4.10.2. Ikasleen eskubide eta betebeharrak babestearekin zerikusia duten jarduerak

- a) Ikasleen eskubide eta betebeharrak. Gure lanbidearen jarduneko erreferentzia gisa ezagutu beharrekoa dugu [201/2008 Dekretua](#), abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa. Hemen duzu gida kontsultatzeko esteka bat: <https://goo.gl/Lo9YNb>



- b) Ikasleen absentismoaren kontrola. Irakasleak bere ikasle guztien kontrola eta jarraipena egiteaz arduratu behar du, adingabeen hezkuntza-eskubidea bermatzeko eta derrigorrezko eskolaldian deseskolatzea eta eskola-absentismoa saihesteko.
- c) Zer egin haur eta nerabeen balizko babesgabetasuna eta tratu txarrak, jazarpena edo sexu-abusuen aurrean. Irakasle bezala, agintariei jakinarazi behar da haurren batek tratu txarrak jasaten dituela edo jazarpen-egoera bizi duela susmatzen denean. Oso garrantzitsua da ezagutzea «*Hezkuntza-eremuan haur eta nerabeen balizko babesgabetasuna eta tratu txarrak, jazarpena edo sexu-abusuak prebenitu eta aurka egiteko, eta hezkuntza-esparruaren eta adingabearen babesean parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzarako protokoloa*», eta Sailaren webgune honetan topatu ahal duzu: <https://goo.gl/FzBmXB>
- d) Zer egin eskola-jazarpenaren arloko egoeraren bat ezagutuz gero? Eskola-jazarpen egoeraren bat ezagutuz gero, kontuan izan behar dugu «*EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako eskola-jazarpenaren aurkako jardute-protokoloaren aplikazioa arautzen duten jarraibideei buruzko Hezkuntza sailburuordearen Ebazpena*». <https://goo.gl/W8Kizp>
- Halaber, ezagutu behar da «*EAEko eskola-jazarpenaren aurka jarduteko gida*». <https://goo.gl/Lzcfy1>
- Ezin da ahaztu, tratu txarren, babesgabetasun-arriskuaren edo eskola-jazarpeneko beste edonolako egoeraren zantzurik ikusiz gero, zuzendaritza-taldeari jakinarazi behar zaiola.

http://

http://

http://

4.10.3. Ongizate pertsonala eta profesionala

Kontsulta dezakezu segurtasuna eta osasunaren zaintzari buruzko informazioa Sailaren webguneko Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzuaren atalean. Pertsonekin lan egitean, eta batez ere ikasle adingabeekin, estresa, frustrazio-sentipena, ezintasuna eta, sarritan, nola aurre egin ez jakiteagatik, ziurtasunik eza sor liteke.

Horrelako egoeren aurrean, honako aholku hauek eskaintzen dizkizuegu:

- Helburu egingarriak, ez utopikoak, jarri behar dira, baina, zerbait lortu nahi baduzu, saia zaitetz lortzen.
- Ez zaitetz frustratu ez baduzu aurreikusitakoa lortzen edo egoera konplexu bati ez badiozu behar bezala aurre egin. Hobetzeko erronka gisa hartu behar da, eta egoera hori zuzendu, murriztu, edo bideratzeko zer egin daitekeen pentsatu behar da.
- Denbora kontrolatu behar da, lehentasunak jarri eta gerta litezkeen arazoei aurrea hartu.
- Harremanak sortu *feed-back*-a edo ideia berriak eskaini ditzaketen lankideekin.

- Ziurtasunez jokatu. Arreta eskaini alderdi positiboari. Ikasi oztopoak antzematen. Saihestu frustrazioa arazo bat konpondu ezin badaiteke. Kontuan hartu behar da ikasleen zenbait jokabide haien egoera emozionalaren ondorio direla.
- Garrantzitsua da distantzia emozionala gordetzea, lasai egotea, horrelako egoerak kudeatzen ikastea, eta laguntza edo aholkua eman ahal diguten profesionalengana jotzea.

4.10.4. Lanbide-erantzukizuna

Irakasle guztien erantzukizuna da ordutegia betetzea eta, irakatsi beharreko curriculumeko arlo edo ikasgaiei dagokienez, ikastetxeko araudian eta plangintzan ezarritako helburuak betetzea, bai eta ikasketa-buruari programazioaren berri ematea epe barruan.

Ikasleak norbaiten begiradapean egongo dira beti. Gogoratu behar da ikastetxean edo ikasgelan gertatzen den edozein gorabehera irakasle guztien erantzukizuna dela. Eskolaz kanpoko jardueretan, ikastetxeko araudia kontsultatu eta aplikatu behar da. Era berean, ezohiko gertaera edo arazoren bat badago, gertatutakoa zehatz-mehatz erregistratu eta gordeko da.

Teknologia berrien eta aplikazio informatikoen erabilerari dagokionez, erabiltzeko baldintzak kontsultatu eta bete behar dira. Igortzen diren mezu elektronikoak egokiak izan behar dute. Ez da inoiz pasahitza ezagutzera emango eta sarri aldatzea komeni da. Komenigarria da ekipoa itzali edo blokeatzea. Kontuan izan behar da blog edo webgune pertsonaletan argitaratutakoa beste pertsona batzuk eskura lezaketela.

Garrantzizko beste alderdi bat ordezkapenei dagokiena da. Gerta liteke, edozein arrazoiengatik, irakasleak ikastetxetik irten behar izatea; kasu horretan, eskolak emateko ordezko bat behar izango da. Beharrezkoa da ikastetxean ezarritako metodo, praktika edo protokoloari buruzko informazioa edukitzea, ordezko pertsonari jakinarazi eta haien arabera jokatzeko.

Irakaslearen absentzia programatua bada, bere ikasleei aurretik jakinarazi beharko litzaieke. Nolanahi ere, irakaslea ez dagoen bitartean ikasleek egin beharreko lana prestatu behar da, eta zuzendaritzari eta ordezkapena bete behar duen irakasleari haren berri zehatza emango zaio.

Gomendagarria da karpeta bat prestatzea ordezkoak beharko duen guztiarekin. Baliteke ordezkoak, programazioari jarraitu beharrean, bestelako gai bati hasiera ematea. Kasu horretan, utzi daitezke prestatu erraz jarrai daitezkeen unitate didaktikoak edo gaiak. Denbora gutxi eskatzen duten jarduerak sartu behar dira, ordezko irakasleak malgutasunez joka dezan. Titularrak egindako lanari buruzko informazioa eskatu beharko du itzultzean.

4.10.5. Zuzendaritza-lana

Irakasle batek bere lan-bizitzan ikastetxeko zuzendaritzari heltzeko erronka planteatu dezake.

Garrantzitsua da honako hau kontuan izatea:

- Zuzendaritza-lana irakasleek betebeharreko eginkizunetako bat da. (ikus [2/2006 Lege Organikoa](#), maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa (91. artikulua, i atala): *“Esleituta dituzten irakaskuntzako, kudeaketako eta zuzendaritzako jarduerak koordinatzea”*.
- Zuzendaritza ikastetxe arrakastatsuetako funtsezko faktoreetako bat da.
- Ikastetxeko zuzendaritzaren eginkizun nagusiak hauek dira:
 - Ikastetxearen helmugak planifikatzea, beharizan eta itxaropenetan oinarrituta, hezkuntza-komunitateko estamentu guztien nahiak bilduz.
 - Zure taldearen laguntzaz, ikastetxea kudeatu eta antolatzea, helburu horiek lor daitezen.
 - Pedagogia-lidergoia garatzea.
 - Ikastetxeko bizitzari loturiko gatazkei behar bezala aurre egiteko.
 - Komunitateko kideen arteko partaidetza eta lankidetzaren sustatzea.
 - Ikastetxeko jarduerak, aurrerapenak eta premiak ebaluatzea, ikastetxea hobetzeko berrikuntza aurkitu nahian, eta kontuan izanik bere lan guztiaren ardatz eragilea irakasleak eta haien ikaskuntza direla.
- Zuzendaritza eraginkorrerako oinarritzko ildoak:
 - Helburutzat hezkuntza-balio zuzen eta partekatuak dituen zuzendaritza.
 - Ikastetxearen berariazko testuingurua kontuan hartzen duen zuzendaritza.
 - Ikaskuntzaren ikuspegi aktiboa sustatu eta ikaskuntza eremu guztietan bultzatzen duen zuzendaritza.
 - Eginkizunak pertsona askoren artean banatuta dituen zuzendaritza.
 - Ikastetxearen orainaz ez ezik etorkizunaz ere arduratzen den zuzendaritza.
 - Hezkuntza-komunitatearen eta Administrazioaren onarpena eta babesa dituen zuzendaritza.
 - Ebaluazio, ikerketa eta garapen profesionalerako baliabideak eta egitura egonkorak dituen zuzendaritza.



4.10.6. Laguntza-zerbitzuak, Hezkuntza Ikuskaritza eta ISEI-IVEI erakundea

Hezkuntza sailak ikastetxeei laguntzeko hainbat zerbitzu ditu; hala nola [Berritzeguneak](#), [IBT](#), [Ingurugela](#)... zeinen bidez prestakuntza eta baliabideak eskaintzen dizkien; [Hezkuntza Ikuskaritza](#), zeinak ikastetxean esku hartzen duen ikuskatuz eta aholkularitza emanez; edo [ISEI-IVEI](#) (Irakas Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Euskal Erakundea), zeinak sistemari buruzko informazio orokorra jasotzen duen, Hezkuntza Saileko arduradunei gure hezkuntza-sistema hobetzeko erabakiak hartzeko baliagarria izango duten informazioa emateko.



5. Praktikaldiaren ebaluazioa

Funtzionarioaren lehen urteko praktikaldiaren ebaluazio on bat egitea oso baliagarria eta laguntza handikoa izan daiteke hobetzeko.

Kontsultatu araudia

Prozesua ezagutu behar duzu, eta horretarako oso garrantzitsua da honako hauek irakurtzea: LEPeren deialdiaren Agindua, Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen praktikaldiei buruzko Ebazpena, eta dagozkion Langileriaren Kudeaketarako Zuzendaritzaren jarraibideak. Galdetu zure lankideei beren ebaluazio-esperientziei buruz. Gehiago jakin nahi izanez gero, hitz egin ezazu zure tutore, ikasketaburu edota ikastetxeko zuzendariarekin.

Nork ebaluatuko zaitu?

Ziur asko ikastetxeko zuzendariak edo horretarako izendatutako tutore batek. Aparteko egoeretan bete dezakete eginkizun hori ikasketaburuak, zure departamentuko buruak, karrerako funtzionarioa den beste irakasle batek edo zure ikastetxeko ikuskatzaileak.

Zure erreferentziako ikuskatzaileak lehen bilerarako egun bat izendatuko du izan ditzakezun zalantza guztiak argitzeko.

Bilera horretan, zure ebaluazioari dagokionez, zein den tutorearen edo zuzendariaren eginkizuna jakinaraziko da.

Jardueretako bat ikasgela bisitatzea izan liteke, autoebaluazioa prozesua barne. Aipatutako bisitaldia egin aurretik, eska diezaioketu zure tutore edo lankide bati ikasgelan sartzeko eta zure irakats-lana behatzeko. Galde iezaiezu ea gauza bera egin dezakezun haien eskola-saioetan.

Ikuskatzailearen bisitaren aurreko bileran, landu behar duzun unitate didaktikoa aurkeztu iezaiozu, eta zure ikasgelako aniztasunaz eta lantzeko moduez hitz egin iezaiozu.

Zure gelako behaketa-saioan, ahal duzun neurrian, saia zaitez naturaltasunez jokatzeko. Jarraitu unitatearen programari, baina ez ezazu zalantzarik izan aldatzeko, hala eskatzen dizun ikasketa-egoeraren bat sortuko balitz, edo egoera gatazkatsu bat konpontzeko, gertatuko balitz.

Bisita ondorengo bileran azal iezaizkiozu zure ikuskatzaileari aipagarriak iruditzen zaizkizun alderdiak eta bere proposamenak eta balorazioak hobetzeko aukeratzat har itzazu. Eskatu berariazko gidalerroak eta hobeto egin ahal izateko adibideak.

Egunean eduki itzazu zure dokumentuak eta zure erregistro profesionalak (programazioak, zure ikasleen kalifikazioak, gorabeherak, bertaratze kontrola, familiekiko bilerak, txostenak, etab.)

Interesgarria izan daiteke ebaluazioaren amaieran tutoreak edo zuzendariak beteko dituzten txosten-ereduak kontsultatzea, bai eta ikasgela bisitatzeko denean erabiltzen den autoebaluazio- agiria ere, Sailaren webguneko «Hezkuntza Ikuskaritza» atalean aurki dezakezuna: <https://goo.gl/BxMshk>





6. Erreferentziako araudia

- [1/1993 Legea](#), otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- [6/1989 Legea](#), uztailaren 6koa, **Euskal Funtzio Publikoari** buruzkoa
- 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua. **Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren** testu bategina (EPOE) (VI. KAPITULUA. Langile publikoen betebeharrak. Jokabide-kodea). [7/2007 Legea](#), apirilaren 12koa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzkoa (EPOE)
- [32/1983 Legea](#), Euskal Herriko Administrazio Publikoen zerbitzura dauden langileen **bateraezintasunei** buruzkoa.
- [2/1993 Legea](#), otsailaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko **Unibertsitateaz Kanpoko Irakaskuntzako Irakasle Kidegoari** buruzkoa.
- [15/2008 Legea](#), abenduaren 19koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko **irakaskuntzan zenbait irakasle-kidego sortzekoa**.
- AGINDUAK, **Oinarrizko Hezkuntzan ikasleen ebaluazioa, Batxilergoaren antolamendua eta ebaluazio-prozesua** arautzen dituena.
- [201/2008 Dekretua](#), abenduaren 2koa, abenduaren 2koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako ikasleen **eskubide eta betebeharrei** buruzkoa.
- Ebazpena, Hezkuntza sailburuordearena, EAEko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetako **eskola-jazarpenaren aurrean jarduteko protokoloaren aplikazioa** arautzen duten jarraibideei buruzkoa. Halaber, *EAEko ikastetxeetako jardueragidaliburua, eskola-jazarpena dela-eta*. <https://goo.gl/T6xHsN>
- [8/2013 Lege Organikoa](#), abenduaren 9koa, **hezkuntza-kalitatea hobetzekoa**.
- [27/2013 Legea](#), irailaren 27koa, **Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari** buruzkoa. TAAI
- [237/2015 Dekretua](#), abenduaren 22koa, **Haur Hezkuntzako curriculum**a zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituena.
- [236/2015 Dekretua](#), abenduaren 22koa, **Oinarrizko Hezkuntzako curriculum**a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa horiek ezartzen dituena.
- [127/2016 Dekretua](#), irailaren 6koa, **Batxilergoko curriculum**a zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikasketa horiek ezartzen dituena.
- [39/2015 Legea](#), urriaren 1ekoa, **Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena**.
- [40/2015 Legea](#), urriaren 1ekoa, **Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena**.
- [185/2010 Dekretua](#), uztailaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen **lan-baldintzak arautzen dituen akordioa** onartzen duena.
- [164/2019 Dekretua](#), **lana eta familia bateragarri** egiteko laguntzei buruzkoa.
- **Ikasturte hasierako ebazpenak**, hezkuntza-etapa guztietakoak. <https://goo.gl/hDrkyh>

7. Bibliografia

- Bolívar A. (2015). *Evaluar el Liderazgo Pedagógico de la dirección Escolar. Revisión de enfoques e instrumentos. Revista Iberoamericana de Evaluación Educativa, 2015, 8 (2), 15-39*
- Cernuda del Río, A (U. de Oviedo); Llorens Largo, F. (U. de Alicante); Miró Juliá, J. (U. de las Islas Baleares); Satorre Cuerda, R. (U. de Alicante); Valero García, M. (U. Politécnica de Cataluña) (2005): *Guía para el profesor novel*. Asociación española de enseñantes universitarios de informática ISBN: 84-268-1243-0; Lege-gordailua: A-573-2005. Seriea: Unibertsitateko irakaskuntza– GHEE
- *Comunidades de aprendizaje en Euskadi. Una respuesta educativa en la sociedad de la información para todos y todas.* (2002) Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz
- *El profesorado consultor (1995).* Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz
- Garcia de la Santa M.A. eta beste batzuk. *Guía del docente de Cantabria 2014-15.* Kantabriako Gobernuaren Hezkuntza, Kultura eta KirolSaila.
- Marcelo, C. (2008). *El profesor principiante. Inserción a la docencia.* Edizio elektronikoa, Octaedro, Bartzelona.
- *Papel del profesorado de EGB con niños y niñas gitanas. Claves para adecuar la escuela a la realidad de los niños y niñas gitanas (1) (1990).* Cuadernos de Adara 30
- Perrenoud, Ph (2004). *Diez nuevas competencias para enseñar.* Bartzelona. Grao
- Porlán, R. eta Martín, J. (1999). *El diario del profesor. Un recurso para la investigación en el aula.* Diada Investigación y Enseñanza, Serie praktikoa. Sevilla.
- Resources for New Teachers, Illinois Education Association. Fotokopiatutako materiala.

